

AIARALDEA *hemen*



KEPA BARAÑANO:
“Laudion jazotako benetako gertakari batzuk harilkatuta osatu dut eleberria” 18-19 or.

AIARALDEA:
Bi langile hil dira azken hiru hilabeteetan Tubacexen lan egiten ari zirela 2-3 or.



Nork egiten ditu isurketak?

LAUDIO 4
Laudio Antzokia eraikitzeako proiektua hautatu dute
Obrak 2021. urtean hasia aurreikusi du udalak. 438 eserleku izango ditu aretoak

LAUDIO 5
Abendurako ireki nahi du udalak Ermualdeko taberna
Taberna esleitzeko prozedura abiatuko du orain tokiko erakundeak

AMURRIO 8
Virgen Niña ikastetxeak izena aldatu du eta D eredura igaro da
“Amaurre” deituko da hemendik aurrera Amurrioko ikastetxea

OROZKO 12-13
Omenaldi jendetsua egin diote Blas de Otero poetari
Herriko hainbat sortzaileak hartu zuten parte asteburuan eginiko “omenaldi ibilatarian”

KIROLA 25-27
Mendizaleentzako zita ugari egongo dira datozen hilabeteetan
Zazpi mendi martxa egongo dira eskualdean urria eta azaroa bitartean

2018an
4.SARIA
HEMEN
SALDU
ZENI

La Casa
de
Resa

Zumalakarregi 3, LAUDIO
94 672 04 93 www.lacasaderesa.com



**TXERRI BAT
HEGAKA IKUSTEN
BADUZU.....**
EROSI, GABONETAKO
LOTERIA TOKATUKO ZAIZU!

**GABONETAKO
LOTERIA**



analisia

Hiru hilabetetan bi behargin hil dira Tubacex enpresan



Elkarretaratze ugari egin zituzten iragan astean jazotako lan heriotza salatzeko. Aiaraldea.eus

Irailaren 18an zendu zen Tubacex taldeko Aeralavako lantegian -Amurrion- langile bat, eta enpresa bereko azpiegituretan hil zen ere 25 urteko gazte bat uztailean. Biak ziren aiaraldearrak, Laudiokoak. Enpresan ordezkartza duten guztiek seinalatu dute prekaritatea dela heriotza horien atzean dagoena.



Testua **Aitor Aspuru Saez**

Uda gogorra izan da bukatu berri dena Tubacex enpresan. Pasa den astean 59 urteko langilea hil zen bihotzekoak jo ostean, bere ardurak betetzen zituena bitartean. Antza, lanpostuan tenperatura altua zegoen eta bero kolpearen emaitza izan zen heriotza, oraindik argi ez dagoen arren. Eusetek enpresa azpikontratatuak langilea zen M. G. R. izeneko audioarra.

Printzipioz, Tubacexek ukatu egin zuen zerikusirik izatea gertatutakoarekin, baina zenbait langile ordezkari gogorazi zuten enpresan jazotzen di-

ren heriotzak lan istripuak direla. Hori dela medio, hurrengo egunean mobilizazioak eta protestak egon ziren, baina parte hartzea ez zen apartekoa izan, aintzat hartuta uztailean ehunka lagun batu zirela Tubacex enpresan izandako beste istripua salatzeko. Zehazki, uztailearen 4an makina batek 25 urteko gazte bat harrapatu eta hil egin zuen Tubacex taldeak Laudion duen fabrika eta gertakariari berehala erantzun zioten bere kideek.

Egunean bertan gelditu zuten ekoizpena beharginen eta hurrengo egunean ere faktoria hutsik egoteaz gain, sarreratik abiatu zen manifestazio jende-

tsua. Arratsaldean elkarretaratzea egon zen eta ondoren Ernai gazte antolakundeko kideek Zumalakarregietorbidetako trafikoa moztu zuten protesta egiteko.

Prekaritatea jomugan

Hilabete gutxiaren buruan bi hildako egoteak enpresa berean, derrigorrez, zerbait txarto dagoenaren seinala izan behar du. Gauzak horrela, uztailean jatorria seinalatu zuten sindikatuek: prekaritatea.

Langile ordezkariak azpimarratu zuten Tubacex taldearen politikak etekinak lortzera bideratuak daudela soilik, eta bazterrean ezinbesteko tresnak geratu direla: azpiegituretan segur-

Langileen ordezkarien arabera, Tubacex taldearen politikak etekinak lortzera daude bideratuak soilik

tasuna bermatzeko inbertsioak, matxuratu diren piezak ordezkatzeko material egokiak, jende nahikoa lanak ganoraz betetzeko eta hutsuneak betetzeko, edota kontratu egonkorak, beharginen ez ditzaten portara arrikutsuak hartu enpresako zuzendaritza pozik egon dadin eurekin eta kontratuaren iraupena luzatu diezaieten.

Are gehiago, politika horiek guztiak bultzatu dituztenei izena eta abizena jarri zizkien langile batzordeak: Celestino Danis TTI eta Aeralavako operazio zuzendaria eta bere "morroiak" -beti ere, sindikatuen hitzetan.

Edonola ere, udan jazotako heriotz horiei beste bi gehi-

tu behar zaizkie azken 9 urteetan. Alde batetik, 2010ean Ugaoko gazte bat zendu zen Laudioko lantegian eta, bestetik, 2013an azpikontrata bateko 41 urteko beharginari gauza bera gertatu zitzaion Amurrion.

2010ean Ugaoko gazte bat zendu zen Laudioko lantegian eta, bestetik, 2013an azpikontrata bateko 41 urteko beharginari gauza bera gertatu zitzaion Amurrion. Gauzak hala, 4 behargin hil dira azken 9 urteetan

Enpresa ez da mugitu

Uztaileko heriotzak eskualde osoa astindu bazuen ere, eta nahiz eta ikasturtea beste gorpu batekin abiatu, Tubacex enpresako zuzendaritzak ez du inolako premiarik adierazi egoera horiei aurre egiteko. Izan ere, irailaren 30ean deitu du konpainiak bilera langile batzordearekin. Hau da, ia 3 hilabete igaro direnean lehen istripua gertatu zenetik.

Jarrera horrek bat egiten du enpresan ordezkariatza duten sindikatuek uztailean azaldutakoarekin. Laudioko gaztearen heriotzaren ostean Aiaraldea hedabide harremanetan jarri zen guztiekin eta denek egin zuten bat puntu batean: ez zela neurri berririk hartu istripuak ekiditeko.

2 langile hil dira Tubacexen azken hiru hilabeteetan

4 pertsona zendu dira azken 9 urteetan Tubacexen eskualdeko fabriketan lan egiten ari zirela

33. lan heriotza izan da honakoa aurten Euskal Herrian

20 behargin hil dira azken 11 urtetan eskualdean lan istripuen ondorioz



Uztailean manifestazioa jendetsua egin zen. Iragan astean, aldiz, ekimena egin zuen Ernaik fabrikaren aurrean. Aiaraldea.eus

KOMUNIKA
www.komunika.eus



Komunikazioa Diseinu grafikoa Itzulpengintza Publizitatea

688 625 366 info@komunika.eus

herriz herri

Laudio

Epaimahai teknikoaren aburuz Javier de las Heras Solé arkitekto kataluniarraren proiektua da onena. 2021erako aurreikusi dituzte obrak.

Proiektuaren arabera, 438 eserleku izango ditu aretoak, baina 700 plaza izatera iritsi ahalko litzateke, aulkietako batzuk kendu ahalko liratekeelako.

“Agora” proiektua hautatu dute Laudio Antzokia eraikitzeko



Testua
Aitor Aspuru Saez

Laudioko Udal Gobernu taldeak jakinarazi du “Agora” proiektua hautatu dutela Laudio Antzokia gauzatzeko. 6 lagunek osatu dute epaimahai teknikoa (4 arkitekto, udal aparejadorea eta animatzaile soziokulturala) eta aho batez babestu dute Javier de las Heras Soléren lana. Orain tokiko erakundeak ekingo dio berarekin negoziatzeari, ideia egikaritzeko. Arkitekto kataluniarraren egitasmoak 438 eserleku izango ditu, baina erdiguneko aulkiak kendu eta batu daitezkeenez, 700 plaza baino gehiago lor ditzake eraikinak.

Ander Añibarro alkateak gorai patu duenez, ezaugarri tekniko guztiak bete ez ezik, proiektuak konpondu egin du bertan egon zitekeen arazorik handiena: alboko etxebizitzekin batzea. Horrela, Antzokiaren estalkia plaza izango da inguruko biztanleentzat, hurbilen dauden etxebizitzaren altuera berean egongo baita. Gainera, arrapala egongo da nahi duenak plaza hori erabili


dezan. Soinua egokia izan dadin, Musikeneko emanaldi aretoa diseinatu duen Gasteizko enpresak parte hartu du proiektuan.

Nabarmendu dituzten beste alde batzuk dira Antzokiak ez duela puntu beltzik sortuko Latorrion, egurra eta kristala erabiliko direla, beirazko fatxada baliatu daitezkeela proiektzioak egiteko eta kamerinoak, biltegia eta bulegoa izango dituela. Guztira, 3 solairutan banatutako 1.793 metro koadro erabilgarri sortuko ditu eraikinak, eta taberna izango du auzokideentzat.

5 milioi euro

Alkatearen hitzetan, Antzokia eraiki eta hornitzeko 5 milioi euro inguru beharko dira. 2020an proiektua erredaktatzeko asmoa dute, eta EAJ eta PSE-EEren nahia da 2021ean hasia obrak. Hala ere, Añibarrok azaldu du izapide oso luzeak egin beharko direla, prozesu garestia eta zaila baita. Horrez gain, Juanje Merchan sozialistak adierazi du hautaketa honekin zor historikoa konpondu nahi dutela laudioarrekin.

1.793 metro koadroko espazioa izango du eraikinak, hiru solairutan banatuta. Obrak 2021ean hasia aurreikusi du udalak



438 eserleku izango ditu antzokiak. **Laudioko Udala**



Laudio

Azarorako berrireki nahi dute hiltegia

Testua
Txabi Alvarado Bañares

“Urriaren amaiera edo azaroaren hasiera”. Hori da Laudioako Udalak bere buruari jarri dion epea hiltegia berriz irekitzeko. “Osasun Sailaren informea dugu jada, akats eta gabezi guztiekin” azaldu du Ander Larrinagak. Txosten horretan zehazten diren egitekoak banatu behar direla nabarmendu du zinegotziak: “bai ala bai egin behar diren gauzak daude alde batetik. Bestetik, hiltegiak ondo funtzionatu dezan egin behar diren aferak daude”.

Egin beharreko hainbat lan aipatu ditu udal ordezkariak: “Paretak margotu behar dira, erre-txina berezi batekin. Iturgintza lanak ere egin behar dira, barne-isuri txikiak daudelako. Animalientzako ‘box’ berria ere eskuratu behar da, animalien ongizaterako legeak horretara derrigor-tzen duelako”. Isurketen afera ere

konpondu behar dela berretsi du Osasun Sailak txostenean. Gauzak hala, “behin behineko konponbidearen” alde egingo dutela aurreratu du Larrinagak: “bainera bat jarriko dugu odola bil-du eta enpresa espezializatu batera eramateko”.

“Erabaki estrategikoak”

Oraindik ez dute zehaztu erre-forma osoaren aurrekontua, “erabaki estrategiko batzuk” hartzeke daudelako oraindik. Hala ere, 100.000 euro inguruko inbertsioa izango dela aurreikusi dute.

“Ez da berdina hotz kamara bat konpontzea edo konpondu gabe uztea”, azaldu du Larrinagak, “badaude erabaki batzuk hiltegia ireki ostean hartu daitekeenak”. Gauzak hala, hiltegiaren gaineko “hausnarketa” egin nahi du udalak, “zer hiltegi eredu nahi dugun, zer zerbitzu mota eskaini nahi ditugun eta nori eskaini nahi diogun zehazteko”.

46.000 euro lortuko ditu udalak pinudiak ustiatuta

Mendi publikoetako pinudien ustiapena esleitu du Laudioako Udalak. Hautatutako enpresek 46.000 euro emango dizkiote guztira udalari trukean. Hala ere, tokiko erakundeak ez du negoziarik egiten pinudien esplotazioa esleितuta, lortzen den dirua birlandatzera bideratzen delako.

10 lokalen itxura hobetuko dute Hirigune programaren azken fasean



Martxandago Hirigune programaren 3. fasea. Herriko 10 lonjen kanpoko itxura hobetzea izango da egitasmoaren helburua. Rotulos Nervión enpresari esleitu diote lan horiek egiteko kontratua. “2017 eta 2018. urteetan egin ziren programaren lehen eta bigarren fasea, hurrenez hurren. Aurtan azkenekoa egitea dagokigu”, gogorarazi du Ander Larrinaga zinegotziak.

Udal gobernuak kideak azaldu du oraindik ez dutela guztiz itxi zeintzuk izango diren aipatutako hamar lokal horiek, baina erdigunean kokatutakoak egongo direla aurreratu du.



Abenduaren 13rako ireki nahi dute Ermualdeko taberna

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Laudioako Udalak jakinarazi du abenduaren 13rako -Santa Luzia eguna- ireki nahi dutela Ermualdeko taberna. Amaitu dituzte jada apaizetxea zena birgaitzeko obrak, eta esleitu berri dute eraikina altzariz hornitzeko kontratua (Hostelco enpresari lizitatu diote).

Ander Larrinagak aurreratu du prest dituztela dagoeneko tabernaren zerbitzua esleitzeko pleguak. Establezimendua-ren kudeaketa bere gain hartzen duenak aukera izango du goiko pisua etxebizitza moduan erabiltzeko.

“Hainbat baldintza ezarri ditugu: taberna egunero egon beharko da irekita, baina ordutegiak ez dira berdinak izan beharko urteko sasoi guztietan”, jakinarazi du zinegotziak, “Horrez gain, tokiko produktuak eskaintzea ere baloratu-ko dugu. Kontuan izan behar dugu Ermualdekoa ez dela taberna hutsa izango, Laudioen erakusleihoa izango baita”.

Horrez gain, bestelako zerbitzuak eskaintzea ere puntuatu-ko dute lehiaketan: “bisita gidatuak edota gastronomiarekin erlazionatutako ekimenak egi-



Apaizetxea zegoen tokian egokitu dute taberna. Laudioako Udalak

tea kasu”. Euskararen erabilera ere baloratuko dute.

Bost urteko kontratua

Tabernaren kudeatzaileek kanon bat ordaindu beharko diote udalari. Oraindik ez dute tasa horren zenbatekoa jakinarazi, baina “arrazoizkoa” izan-

go dela aurreratu dute. Kontratuaren iraupenari dagokionez, “ahalik eta luzeena” izatea hobetsiko dutela zehaztu du Larrinagak, “kontrol mekanismoak ezarrita beti ere”. Aurreratu duenez, bost urteko kontratua izatea aztertzen ari dira, “urtebeteko probaldiarekin”.

228.000 euro baliatuko ditu udalak industrialdean hobekuntzak egiteko

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Hainbat berrikuntza egingo ditu Laudioako Udalak herriko industrialdean. “Zonaldeko errepide eta espaloiak hobetzea izango da egitasmoaren xedea”, azaldu du Ander Larrinagak, “hainbat puntu identifikatu ditugu, irisgarritasuna falta zaielako edota hobekuntza zein garbiketa behar dutelako. Batxeak eta zuloak konponduko ditugu, gauza txikiak izango dira”.

Zinegotziak gogorarazi du ia ere eskatu zela horrelako

obrak egiteko diru laguntza. Aurtan berriz aurkeztu da tokiko erakundea Industria Poligonoak Berritzeko Planera.

Gauzak hala, 96.000 euro emango ditu Spri taldeak (Eusko Jaurlaritzaren enpresa garapenerako agentzia) lan horiek finantzatzeko. Egitasmoaren aurrekontua 228.000 eurokoa izango da guztira.

Obra urte amaieran esleitzeko aurreikusi du udal gobernu taldeak. “Behin lizitatuta, hautatutako enpresak 3-4 hilabete izango lituzke proiektua egiteko”, zehaztu du Larrinagak.

8 udaltzain berri sartuko dira Laudion hurrengo urtean

Laudioako alkateak azaldu zuen atzo 8 udaltzain berriri behin betiko kontratua egingo diela udalak. Horretarako harremanetan jarri dira Segurtasun Sailarekin, egin duten udaltzainen deialdi bateratutik bideratzeko. Hasieran 5 agente besterik ez zituen eskatu Laudioako Udalak, baina zenbait polizia erretiroa hartu dute eta leku horiek ordezkatu behar dituzte. Horrez gain, orain arte udaltzain lanetan aritu diren asko Ertzaintzansartu dira; hortaz, lantaldea berritzea premia zen.

Guztira, 30 agente inguru ditu udalerriak, 4 polizia txanda bakoitzeko eta ofizialak.

herriz herri

Arrankudiaga-Zollo

Hasi dute ikasturtea Txondor Gaztetxean

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Gogotsu ekingo diote ikasturte berriari Arrankudiagako Txondor Gaztetxean. Dantza ikastaroa abiatu zuten iragan astea astezkenean. Ordubeteko saioak egingo dituzte aste-
ro, ekainera arte. “Astelehene-
tan edo asteazkenetan egingo
ditugu, arratsaldeko zazpitan
(irakaslearen lan ordutegiaren
arabera)”, azaldu dute Arranku-
diaga eta Zolloko Gazte Asan-
bladako kideek, “hilabete ha-
sieran adostuko ditugu datak.
“Talde irekia” dela nabarmen-
du dute. “Beraz herriko gazteak
eta helduak animatzen ditugu
parte hartzera!”.

Ikastaroa egiten duten hiru-
garren ikasturtea izango da ho-
nakoa. Iaz egin zuten lehenbizi-
ko aldiz. “2018an herriko zen-
bait gazteren artean komenta-
tu genuen euskal dantzak ikasi
nahi genituela eta herriko gai-
nontzeko pertsoneri ere ikaste-
ko aukera eman nahi geniela”,

kontatu dute gazte asanblada-
ko kideek. Pentsatu eta egin.
2018ko otsailean ekin zieten
klaseei. Hasieran 6-7 gazte zi-
ren, baina gaur egun 15 pertso-
na daude taldean eta “sortu den
giroa oso polita da”, antolatzaile-
en esanetan.

Ekintza gehiago

“Herriko gazteak aktibatzea”.
Hori da asanbladan ikasturte
berrirako zehaztu duten helbu-
ruea. Hainbat egitasmo egingo
dituzte horretarako. “Orain arte
egindako ekintzekin jarraituko
dugu, kontzertuak kasu”, zehaz-
tu dute, “hilabete behin zine-
ma egiten dugu gaztetxean eta
neguko oporretan ere umeen-
tzako hainbat jarduera anto-
latzen ditugu, eta jarraituko
dugu”.

Hitzaldiak antolatzea ere au-
rreikusi dute, “gazteei eta gai-
nontzeko herritarrei begira”.
Horrez gain, gaztetxeko taber-
na zabalduko dute ostiral arra-
tsaldetan eta igande goizetan,
“aurreko ikasturtean bezala”.

Okondo

Ur saneamendua bereizteko babes ekonomikoa eskatu dute

Testua
Izar Mendiguren Cosgaya

Eusko Jaurlaritzako diru-la-
guntza deialdira aurkezteko ez-
ohiko udalbatza egin zuten ir-
agan astean Okondoko Udalean.
Jon Escuza alkateak azaldu zue-
nez, diru-laguntza eskaera epea
gainean dutelako aurreratu zu-
ten deialdia -osoko bilkura hile-
ko azken ostegunean da-, eskae-
ra telematikoki egiteko denbo-
ra edukitzeko. Okondo Aurrerak
deialdiaren urgutzia kritikatu
zuen. “Kontsultatu eta informa-
zioa pasa gabe deitu duzue bilku-
ra”, aipatu zuen Sergio Tato zine-
gotziak. Hori dela eta, deialdiaren
onespen bozketan kontrako bo-
toa eman zuen plataformak. Gai-
nontzekoen -EAJ eta EH Bildu- al-
deko bozarekin egin zuen aurre-
ra deialdiak.

“Aukera ona da saneamendu sa-
rea bereizteko. Proiektu tekniko-
a eginga dago, Arabako Foru Aldun-

diaren eskuetan dago”, adierazi
zuen alkateak. Landa eremueta-
ko herrien garapenerako lagun-
tzetan kokatu nahi dute proiektu-
a eta, Arabako Foru Aldundia-
ren babesarekin, Eusko Jaurlari-
tzarena ere lortu nahi du udalak.
“1.400.000 eurokoa da aurrekon-
tua, 53.000€ balio dute obrek”.
Guztira, beraz, 1.453.000€ bide-
ratuko ditu tokiko erakundeak
lanetara. Gastuari aurre egiteko
Arabako Foru Planetik 927.630€
aurreikusi dituzte, eta baliabide
propioetatik -hau da, udaletik-
527.856€. “Horrenbestez, guztira
1.455.000€ ingurukoa da zenba-
tekoa”, erantsi zuen Escuzak.

Tokiko instituzioaren gastua
murriztu nahi dute Eusko Jaurla-
ritzako deialdiaren bidez. “Herri
osoan eragingo dute lanek, erre-
pide nagusia alde batetik bestera
zabaltu beharko da, espaloi ba-
koitzean ur fekalak eta gainon-
tzeak bereizteko. Herritarrek
ez dute onura nabarituriko, baina

ingurumenak bai”, aurreratu dio
alkateak Aiaraldea hedabideari.
Obrek urtebeteko iraupena izatea
espero dute, lurra altxatu behar-
ko baita eta horrek trafikoari era-
gingo baitio. Europako arau-
tegiak ur saneamendua sailkatua
izan behar dela dioelako susta-
tu dute lana.

Okondo Aurreraren kexa

Eragile politiko guztiek egin
zuten bat proposamenarekin.
Okondo Aurrerak hitzartzea ba-
liatu zuen bere jarrera argudia-
tzeko: “Egitasmoaren alde boz-
katuko dugu, aurreko lege-agin-
taldian Okondo Aurrerak propo-
satutako proiektua izan baitzen”.
Alabaina, ez-ohiko deialdiareki-
ko desadostasuna berretsi zuen:
“Oposizioarekiko errespetu fal-
ta da, eta hori da lege-agintal-
di honetan EAJ hartzen ari den
bidea”. Ohiko bilkura irailaren
26an izango da, 19:00etan uda-
letxean.

Saguzarrak ikustera joateko irteera egingo dute ostiralean



Ez da eskualdean egiten den mota horretako lehen irteera izango. **Xabier Iturrate**

Testua
Izar Mendiguren Cosgaya

“Saguzarren gaua” antolatu du
Okondoko Udalak datorren osti-
ralerako -irailak 27-. 19:00etan
izango da zita Kultur Etxean. So-

lasaldia egingo dute bertan, eta
jarraian egingo dute animalia ho-
riek begiztatzeko txangoa.

“Helburua da herritarrei sa-
guzarren mundua ezagutaraz-
tea, haien berezitasunak eta in-
gurunean duten garrantzia azal-

duaz eta, era berean, urte askotan
ugaztun horiei kalte handia egin
dieten mitoak eta sinesmenak ge-
zurztatzea”, azaldu du tokiko era-
kondeak. Irteera doakoa izango
da, baina parte hartzaileek linter-
na eraman beharko dute.

ARRASTIAK FAKTORIAN

Irailak 27
20:00etatik 22:00etara

Jon Basaguren
(Musika)

AFARIA + KONZERTUA 7€
(Tokiko burgerra / pizza ekologikoa + patata frijitua)

Kontzerturako sarrera 3€
Haurrak: **Sarrera doan / Aferia 4€**

www.faktoria.eus
Laudio: Industrialdea 4-8 pabillioa (Kerrika jabetxearen ondoan)

Amurrio

Virgen Niña ikastetxea “Amaurre” deituko da hemendik aurrera, eta D ereduan murgilduko da



Iragan astean egin zuten aurkezpena. Amaurre ikastetxea

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Prentsaurrekoa egin zuten iragan astean Virgen Niñako arduradunek, Amurrioko ikastetxe horretan aldaketa esanguratsuak egingo dituztelako. Alde batetik, hezkuntza zentroaren izena aldatu dute. Gauzak hala, Virgen Niña deituzetik, Amaurre deitzera igaroko da eskola. Izenaren hautaketa ez da nolanahikoa izan. “Ez ditugu gure sustraiak ahaztu nahi izan, Virgen hitza Ama-gatik aldatu dugu eta Niña, aldiz, haurragatik”, azaldu du Amaia Aldama Orue zuzendariak, “horrez gain, Amaurre hitzak baditu beste esanahi batzuk: iturburua, erreka, urrea...”.

Aldamak azaldu duenez, prozesu sakon baten emaitza izan da izen aldaketa. “Duela 65 urte etorri ziren Amurriora Virgen Niña kongregazioko ahizpak. Duela urtebete lekukoa pasatu zioten Bidaide fundazioari”. Fundazioak ikastetxearen titulartasuna bere gain hartu zuenean, “hausnarketa prozesu batean” murgildu ziren zentroko kideak, ikastetxearen eredia “berritu” eta, modu horretan, “XXI. mendeko erronkei” erantzuna eman ahal izateko, baina “sustraiak” ahaztu gabe.

“Balioen lanketa”

Balioen lanketa izan dute horretarako lanabes nagusia. “Munduan dagoen ziurgabetasuna kontuan hartuta, argi dugu gure hezkuntza proiektuak balioak izan behar dituela oinarri, guztiei merezi digun mundu hobeago bat eraiki dezagun. Nor garen jakiteko eta guztiok lekua dugun gizar-te bat sortzeko. Anitza, inklusiboa eta enpatikoa”, azaldu du Aldamak, “uste dugu hazten jarraitzeko eta gure ikasleak etorkizunerako prestatzeko eraldatzea beharrezkoa da. Garenetik mundua gelara ekarri eta geletatik ikasleak mundura ateraz. Eta hori da Amaurre”.

D eredia

Izen aldaketaz gain, hizkuntz politika ere aldatu dute ikastetxean, D eredia igaro baitira ikasturte honetan. “Apustu handia egin dugu euskararen alde”. Horrez gain, hizkuntza gutxituei buruzko nazioarteko proiektu batean murgildu dira ikastetxeko kideak, Finlandia, Irlanda, Austria eta Maltako hezkuntza zentro batzuekin elkarlanean.

Urte amaieran hasiko dute gasolindegia zaharra ordezkatzeko duen biribilgunea



Abenduan hasiko dira obrak, udalaren aurreikuspenen arabera. Amurrioko Udala

Testua
Izar Mendiguren Cosgaya

575.777 euroko inbertsioa aurreikusi du Amurrioko Udalak herriguneko gasolindegia ohia urbanizatzeko. Prentsa oharrean aurreratu dutenez, urtearen amaieran hasiko dituzte lanak. “Une honetan gasolindegia bat dago bertan.

Lanei esker, inguru horretako trafikoa berrantolatu ahal izango da”, adierazi du tokiko era-

kundeak. Hala, Aldai, Etxegoien eta Jose Medinabeitia kaleek biribilgunean egingo dute topo. “Berrurbanizatzeko lanek inguruko trafikoa berrantolatzeko aukera emango dute. Biribilgunearen eraikuntzaz aparte, saneamendua eta argien zaharberritzea proiektatu dira, baita bidegorria eraikitzea ere”.

Obrak hasi berritan eraitsiko dute erdiguneko gasolindegia ohia, “eta lurreko kutsadura garbituko da”. Modu horretan,

espaloiko tarte batzuen altuera handituko dute, besteak beste.

Horrez gain, argiteria eta ur zikinen zein saneamendurako kolektoreak berriztatuko dituzte. Eta, bide batez, Aldai-Elexondo kaleetako bidegorriari segida emango diote. 2014an iraungi zen gasolindegia ohia erabiltzeko baimena.

Iaz, aldiz, zoruko kutsadura garbitzeko lan-hitzarmena adostu zuten eraikineko jabeak eta udalak.


Matthew's
School of English
Orduña

- ✓ Klase atseginak, praktikokoak eta profesionalak
- ✓ Adin eta maila guztiak
- ✓ Business English
- ✓ Murgiltze-ekintzak

Walking Talking irteetara apunta zaitez!

Foru plaza, 2 · Tel: 669 227 039
www.matthewschool.com


OREKA

ZERBITZUAK EUSKARAZ ETA GAZTELANIAZ

- Arreta goiztiarra
- Logopedia
- Terapia Psikomotorra
- Laguntza Pedagogikoa
- Haur, nagusi, familia eta bikoteentzat laguntza psikologikoa
- Fisioterapia pediatrikoa

Jose Matia kalea 6, behea (Laudio) 688 69 41 16 oreka@gmx.es


Open your mind!!
language school

2019-20 matrikulazioa zabalik


INGELESA
FRANTSESA
ALEMANIERA

- Maila guztiak
- Haur eta helduentzako klaseak
- Solasaldiak

688 90 51 74
openyourmindschool@gmail.com
San Anton enparantza, 1 (Oheragoitia elementary)

herriz herri

Orozko

“Orozkoko txosnagunean emandako erasoak salatu nahi ditugu”

Testua
Izar Mendiguren Cosgaya

Jaietan gertatutako erasoen berri eman du Orozkoko Txosnaguneak prentsa ohar bidez. "Orozkoko txosnagunean Zapatu Morea ospatzen den egunean hainbat aldiz eman ziren jarrera erasokorrak salatu nahi ditugu".

Azaldu dutenez, mutil gazte batek zenbait lagun jazarri zituen, jarraipen eta mehatxuekin, "bereziki emakumeak". "Gainera, erasotuen paretik alde egiteko gonbitea jaso ba-

zuen ere, jendea ezeroso sentiarazten jarraitu zuen", erantsi dute.

Horrelako jarrerak onartezinak direla eta, festak gozamenarako izan behar direla nabarmendu dute: "Guztion gozamenarako espazioa da txosnagunea, eta honelako egoeren aurrean ezin gara geldigeratu. Erasorik ez, erantzunik gabe!".

Ez da jaien testuinguruan aurten eskualdean jazotako salaketa bakarra. Uztailean, neska gazte batek Izorian jasandako erasoaren berri eman zuen.

“Orozkoarrek ordaindu beharko dituzte Zubiaur Eraikuntzaken auziko inputatuen abokatuen 44.000 euroko gastuak”

Testua
Izar Mendiguren Cosgaya

Behin-behinean artxibatu egin dute Zubiaur Eraikuntzakeko auzia. Inputatutako Kontseiluko kideak zinegotzi zirela eta, udalak ordaindu beharko ditu euren abokatuen gastuak.

Adiek adierazi duenez, 44.274,44 euro horiek ezin izango dituzte Orozko hobetzen inbertitu. Epaiketaren nondik norakoak eta ondorioak azaldu dituzte prentsa oharrean: "Izan ere, epaileak 'delitu arrastoak' ikusi zituen orduko EAJ eta Bilduko kontseilariak lehiaketa publikoa manipulatzeko saiatzearatik, eta ikertuak izateko agindua eman zuen".

Kasua, artxibatuta

Bizkaiko Lurralde Auzitegiak artxibatu egin zuen kasua, froga nahikorik ez zegoelako. Absolbitzearen ondorioz, EAJko bi kontseilariak

defentsa abokatuan gastutako 44.274,44 euroak eskatu zizkion udalari. "Adien ez genuen inola ere onartu Orozkok ordaintzea herriaren kontra zihozten jarrera irregularretatik defendatzeko zerbitzua. Gainera, ez zituen udalak salatu, epaile batek egin zuen, euren ekintzetan delitu arrasto larriak ikusi zituenean", erantsi dute.

Zubiaur Eraikuntzak-eko lehiaketan puntu gehien lortu zituen enpresaren gerentzia kontratua oztopatu zuten EAJk eta EH Bilduk, Adieren iritziz, esleitzearen kontra bozkatuta.

Hala zehazten du 2014ko uztaileko Administrazioarekiko Auziaren Epaitegiko sententziak, Adieren aburuz: "Elkarreko gehiengoa osatzen zuten 3 kontseilarien balizko delitua ikertzeko agindu zuen, eta instrukzio epaileak delituak hantitu zituen; ondorioz, hirurak inputatu zituzten fondoak bigabe erabili eta prebarikatzearatik".

Urduña

Kultura Etxeko fatxada itxuraldatuko dute, hiriko artista baten diseinuarekin



Porrillok artistak egin du fatxada berritzeko diseinua. Urduñako Udala

Testua
Izar Mendiguren Cosgaya

Urduñako Kultura Etxeko fatxada margotzeki ekin dio udalak. Oraintsu hasi dituzte lanak. Itziar Biguri Ugarte alkateak Aiaraleda hedabideari azaldu dionez, hiriko artista batek berrituko ditu hormak, Jose Luis Abajo "Porrilló"-k: "Foru plazako arkupeetan ere osatu zuen margolana". Urduñakoa izan arren, nazioartean ere aritutakoa da irudi egilea, "New Yorken ere erakusketak eginak ditu".

Hala, Abajori esleitu diote Ur-

duña Hiria Museoaren kanpoaldea itxuraldatzeko lana, eta hilaletako tartean espero dute bukatzea. "Oso koloretsua izango da, modernoa", aurreratu du alkateak. Ez da Urduñako guneak atontzeko azkenaldian egindako proiektu bakarra; Harakin kaleko horman hiriko iragana oroitarazteko murala osatu baitzuten.

Margolari esanguratsua

Porrilló ezizenarekin sinatzen ditu urduñarrak haren sorkuntzak. Urteak daramatza langintzaren puntan, erakusketa uga-

ri antolatu baititu 1974az geroztik. Japoniako Osakako XXVIII. Nazioarteko Gen Ten Erakusketan Bikaintasunaren ziertagiria jaso zuen, besteak beste; eta urtebete beranduago Ohorezko domina eman zioten jaialdi berean. Frantzia ere aurkeztu ditu bere lanak, Bordeauxen kasu.

Beste kontinenteetan ere utzi du arrastoa: 1997an New Yorkeko Montserrat Galerian izan zen, eta 1998an Mexikon egon ziren ikusgai bere sorkuntzak. Edozelan ere, margogintzan bezala, eskulturan ere aritu da.

Artziniega

Arropa eta oinetako bilketa solidarioa abian, urriaren 1etik 8ra

Testua
Txabi Alvarado Bañares

"Bigarren Bizitza" egitasmoa jarri dute berriz abian Artziniegan, baliabide gutxi dituzten bizilagunentzako arropa eta zapatak biltzeko.

0-16 urte bitarteko haur

eta nerabeentzako jantzi eta oinetakoak biltzea izango da kanpainaren xedea.

Urriaren 1etik 8ra egongo da dohaintzak egiteko aukera, udal liburutegian (10:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara bitartean).

Ekimenaren sustatzaileek na-

barmendu dute dohaintzan ematen diren gauzak "garbituta eta egoera onean" egon behar dutela. "Edozein arrazoi dela medio familiei helarazten ez zaizkien arropa eta oinetakoak Caritasen edukiontzira botako dira edo Amurrioko arropategiari emango zaizkio", jakinarazi dute.

argazki erreportajea

XXVI. Artzain Eguna ospatu zen igandean Amurrion. Goizean goizetik, artzaintzari lotutako jarduerak izan ziren nagusi: ardien ile mozketa erakustaldia, azoka, Arabako artzainei omenaldia... Alabaina, bestelako jarduerak ere izan ziren, Araiaiko musika bandaren emanaldia, Burubioko kontzertuak edo frontoiko pilota partidak kasu.

Landa eremua eta herrigunea harilkatzeko “Artzain eguna”

OMENDUAK

Arabako artzainak omendu zituzten, hiru bereziki: Jose Luis Menoyo, Paula Menoio Garcia de Cortazar eta Goyo Otxola de Zuazaola. Errelebo edo “belaunaldi eza” dela euren arazo handiena adierazi zuten, eta langintza hobetzeko “omenaldiak ez direla aski”.



JARDUERA UGARI

Artzaintzari lotutako jarduera ugari egon ziren goizean zehar: ardien ile mozketa, ardiki dastaketa, Aztarnaren erakusketa... Arratsaldean, aldiz, artzain txakurren txapelketa jokatu zen.



TOKIKO EKOIZLEEN AZOKA

San Anton plazaren inguruan kokatu zuten ohi bezala tokiko ekoizle eta artisauen azoka. Hala, bertako produktuak erosi eta dastatzeko aukera eskaini zuten.



AZTARNAREN ERAKUSKETA

Aztarna Elkarteak erakusketa atondu zuen herrigunean barrena.

DANTZAK

Eguerdia egin zuten ekitaldi nagusia. Artzain omenduei oroigarria eman ostean, Aiara Dantza taldekoen ikuskizunaz goatzeko aukera izan zuten hurbildu zirenek.



erreportajea

14 espediente hiru urtetan



Duela bi urte 8.000 arrain inguru agertu ziren hilik Amurrion, Nerbioi ibaian. AiaraIdeia.eus

Bi urte igaro dira Nerbioi ibaian milaka arrain hilik agertu zirenetik, Amurrion. Ordutik hona URA agentziak eskualdeko 14 erakunde publiko zein pribaturi ireki dizkie espedienteak ibaira isurketa irregularrak egiteagatik. Legezko isurketak egiten dituztenak, baina, askoz gehiago dira.



Testua **Txabi Alvarado Bañares**

Nerbioi ibaian jazotako isurketek zeresan handia sortu dute azken urteetan. 2019ko irailean milaka arrain -8.000 inguru- agertu ziren hilik Amurrion. Gertakizun hori oso entzutetsua izan zen. URA agentziak laginak hartu zituen ikerketa abiatzeko, baina azkenean artxibatu egin zen kasua, ez zelako animalien heriotza eragin zuen isurketa nork egin zuen ebatzi.

Ordutik hona ugariak izan dira aditzera eman diren isurketa irregularren kasuak. Aiaraldea hedabideak horietako hainbat berri eman du, eta herritar ugari ere sare sozialak baliatu dituzte antzeko kasuak zabaltze-

ko. Udangaiak berriz egin du salto plazara, URA agentziak odol-isurketak berehala etetea eskatu ziolako Laudioko Udal Hiltegiari. Horregatik, azpiegitura hori behin behinean ixtea erabaki zuen udalak.

Hala ere, hiltegiko inguruetan isurketa irregularrak ez dira eten, nahiz eta bere jarduera bertan behera geratu. Irailaren 14an kolorez aldatu zen ibaia puntu horretan, azpiegitura hilabete osoa baino gehiago itxita egon arren. Auzokide batek udaltzaiei jakinarazi zien gertatutakoa eta poliziak txosten bat osatu zuen. Dena den, URA azaldu du ez duela horren berri izan: "Guregana informazioa heltzeko prozedura oso zehatza da; 112 telefono zenbakira deitu behar da,

bestela ez dago jasoko dugunaren bermerik".

Berez, aipatutako kutsadura puntu hori errepikakorra izan da eta Aiaraldea Hedabideak behin baino gehiagotan argitaratu ditu horri lotutako albisteak. Esaterako, iazko urrian bi isurketen argazki erreportajeak argitaratu zituen web orrialdean.

Gune horretan enpresa gehiago egonda ere, udal hiltegia da isurketa irregularrak egiteagatik bere jarduera eten behar izan duen bakarra. URA agentziak 14 espediente ireki ditu 2017tik hona antzeko kasuengatik. 14 kasu horietako hiru behin betiko ebatzi dira, enpresek isurketa irregularrak egin zituztela frogatu delako. Zeintzuk dira hiru enpresa horiek? "Erakunde publiko

Hamalau espedientetatik hiru ebatzi ditu URA agentziak, baina ez du enpresek izenik zabaldu nahi izan, "benetako arazoa" saneamendu orokorra egin gabe dagoela uste duelako

eta pribatuak dira", azaldu dute URA agentziako kideek, baina ez dute izenik eman nahi izan. Euren iritziz, "benetako arazoa" ez da erakunde zehatz batena: "Saneamendu orokorra oraindik egin gabe dagoela da problema, eta ez dela era profesional eta zorrotzean kudeatzen. Aiaraldea ez da eskualde txikia; industria jarduera nabarmena du; eta EAEko saneamendu orokor gabeko eskualde handiena da".

Baimendutako isurketak

Isurketa irregularrei baimenduak daudenak gehitu behar zaizkie. URAren arabera, Aiaraldean 290 isurketa-puntu daude baimenduta. Hori "erabat arraroa" dela uste dute agentziako kideek. "Izan ere, uren kudea-

erreportajea

ketaren ikuspuntutik, araudiak aglomerazio urbanotzat jotzen du eskualdea, eta 290 horietatik gehienak, jada, saneamendu orokorraren sistemara -kolektoreetara- konektatuta egon beharko lukete, horien bitartez araztegira joan daitezen, eta tratatuak izan eta gero, isurketa bakarra -bana araztegiko- egin dadin”.

Espainiako gobernuaren PRTR erregistroan eskualdeko zortzi enpresek eginiko legezko isurketen datuak topatu daitezke. Hauek dira entitate horiek: Amurrio Ferrocarril y Equipos, Vidrala, Aceralava, Tubacex, Castinox, Jez, Nubiola eta Guardian

Araztegiak dira, hain zuzen, eskualdeko ibaien saneamendua bermatzeko azpiegiturarik funtsezkoena. Nerbioiko kolektoreetan 40 milioi inbertitzea onartu zuen Espainiako Gobernuako Ministroen Kontseiluak urte hasieran. Baina orain, bigarren hauteskunde orokorren atarian, oso nahasia dago egitasmo horren etorkizuna.

PRTR erregistroko datuak

Dena dela, badago eskualdeko enpresek egiten dituzten legezko isurketen gaineko informazioa

topatzeko iturri bat: PRTR erregistroa. Enpresak derrigortuak daude erregistro horrek eskatzen duen informazioa ematera, baldin eta muga batzuk (815/2013 errege dekretuan zehazten direnak) gainditzen badituzte.

2017. urtekoak dira azken eguneraketak. Datu horien arabera, honako enpresa hauek isuri zituzten urte horretan substantzia kutsagarriak uretara: Amurrio Ferrocarril y Equipos, Vidrala, Aceralava, Tubacex, Castinox, Jez, Nubiola eta Guardian. URA agentziak zehaztu du hainbat neurri eskatzen dizkietela isurketa handienak egiteko baimeak dituzten erakundeei: “isurketen arteko loturak egin behar dituzte, kontrolak burutu behar dituzte eta kutsadura gutxitzeko neurriak hartu behar dituzte”.

290
isurketa
puntu daude
baimenduta
Aiaraldean

14
espediente
ireki ditu URA
agentziak
eskualdean

8.000
arrain inguru
hil ziren duela
bi urte jazotako
isurketa baten
ondorioz



Goian, hiltegiaren parean egondako isurketa baten irudia. Behean, toki berean egondako odol-isurketa baten argazkia.

2017

Iraila

2019

Martxoa

Abuztua

Milaka arrain agertu ziren hilik Amurrian, Nerbioi ibaian. URA agentziak ikerketa abiatu zuen baina azkenean artxibatu egin zuten kasua. Orduz geroztik isurketa irregular ugari jazo dira eskualdean



Nerbioiko kolektoreetan 40 milioi inbertitzea onartu zuen Espainiako Gobernuako Ministroen Kontseiluak, hauteskundearen atarian

Odol-isurketak direla eta, Laudioko hiltegia behin behinean ixtea erabaki zuen udalak, egoera bideratu arte

argazki erreportajea

Orozkoko Batasuna dantza taldeak Blas de Oteroren heriotzaren 40. urtemuga dela-eta, "omenaldi ibiltaria" egin zuen asteburuan herrian, Blas de Oteroren poemak eta bizitza

ardatz hartuta. Jendetzak egin zuen bat ekimenarekin. Poesia, dantzak, abestiak, bertsoak eta zuzeneko musika tartekatuta zituzten gonbidatu bereziekin.

Blas de Oteroren idazluma, Orozkoren oroimenean ibiltari



Testua **Izar Mendiguren Cosgaya**

Poesia, musika eta dantzarekin gogoratu zuten Blas de Oterori Orozkok utzitako arrastoa, larunbatean. Batasuna dantza taldeak antolatu zuen "omenaldi ibiltaria", idazlearen heriotzaren 40. urteurrena medio.

Bost geldialdi egin zituzten artistarentzat esanguratsuak izan ziren tokietan: Muñozen etxean, Txoperan, San Anton iturrian, frontoian eta Zubiaur plazan. Muñozetxea uda bertan igarotzen zuelako aukeratu zuten. Txopera, berriz, poema baten izenburu eta muina delako. Azaldu zuten, frontoira ere sarritan joaten zen "giharrak luzatzera". Blas de Oterok, bere lanetan, Ibarra edota Murueta auzoetako erromeriak ere aipatzen ditu; edota Luiaondo, Laudio edota Baranbio herriak. Aiaraaldeaz gain, euskal hizkuntzari ere egin zion keinu, Orozko eta Durango haranetakoa zela aitortuz idatzitako "euskeraz egin dezagun" poeman kasu.

Guzti horiek eta gehiago kontatu zituzten ikuskizunez beteriko ekitaldi ibiltarian. Herriko aurpegi, ahots eta ezagun asko bildu zituen zitak. Horien artean, Agurtzane Intxaurreaga antzezlea edota Rafa Muntion irrati esatari oiha. Juanjo Respaldiza bertsolariak ere hartu zuen parte. Musika instrumentu ugari entzuteko parada egon zen: bibolina, biolontxelo, txirula, kitarra... Baita poeten errezitaldiak ere, Julio Flor eta Jose Fernandez de la Sotarena kasu.

Halaber, tokiko eragile eta herritar andana inplikatu ziren: Agate Deuna abesbatza, Orozkoko eskola, bertso eskola, Josu Amundarain eta Aitzol Basaldua txalapartariak... Hain zuzen, frontoia egokitu zitzaizen azken hiruei eszenatoki gisa. Juantxu Urizarren eta Iker Iriondo pilotariak partida azkarra jokatu bitartean, txalapartaren hotsek lagundu zuten Orozkoko haurren "hitzik ez"

poesia.

Une berezi ugari pilatu zituen omenaldiak. Txoperan, esaterako, arte diziplina ugari nahastu zituzten: Rafa Muntionek eta

Omenaldi ibiltaria antolatu zuten larunbatean Orozkon, Blas de Oterok herriarekin izandako harremana oroitzeko

Agurtzane Intxaurreagak eskainitako olerkiak, Maialen Bilbaoeren dantza, eta Izaskun Villaverderen txirula soinuak, besteak beste. Gune guztietan Blas de Oteroren poemak iltzatu zituzten egurrezko xaflatan. San Anton iturriaren bueltan, akordeoi doinu artean irakurri zituzten Santa Marina eta "Harana" hizpide dituen sormen lanak. Euskaraz sortuak batzuk, gaztelaraz besteak. Zubiaur plazan bukatu zen ikuskizuna, "Orozko" poemaren irakurketa eta Lucia Socamen kantaldiarekin.

Urtebeteko lanaren emaitza

Pedro Martin Olabarria Batasuna dantza taldeko kidea da. "Orozkorekin zuen harremana herriari azaltzea izan da helburua. Txikitatik jolastu du hemengo erreketan, frontoian.... Orozkoar guztiok bezala", adierazi dio Aiaraaldea hedabideari.

Urtebete igaro dute emanaldia prestatzen: "Iazko abenduan hasi ginen ideari bueltak ematen. Oso ikuskizun landua izan da. Eskerrak eman behar dizkiegu antolakuntzan lagundu gaituzten guztiei, eta baita hurbildutako pertsoneri ere, euren presentzia aktiboagatik".



MUÑOZEN ETXEA

Muñozen etxean igarotzen zituen udak Blas de Oterok. Bertan eman zioten hasiera "omenaldi ibiltariari", poesia artean, Batasuna dantza taldekoen eta Blas de Otero fundazioko hitzartzearen ondotik.

IKUSLE UGARI

Orozkoko zein inguruetako herritar ugari bertaratu ziren ikuskizun ibiltariaz goatzera. Bost geldialdi izan zituen, harik eta plazan bukatu zen arte.

argazki erreportajea

TXOPERA, LEKU KUTTUN

Txoperako larre artean uztartu zituzten Rafa Muntion eta Agurtzane Intxaurreagak poesia, musika eta dantza. Maialen Bilbao dantzariak eta Izaskun Villaverde musikariak ere hartu zuten parte bertan.



FRONTOIA

“Giharrek luzatzera” joaten ei zen Blas de Otero Orozkoko frontoira. Txalaparta eta bertso artean, “Euskaraz egin dezagun” poema irakurri zuten eskolako umeeek, besteak beste.



SAN ANTON

Iturriaren bueltan irakurri zituzten Santa Marinako erromeriak hizpide dituen Blas de Oteroren lanak. Agurtzane Intxaurreaga, Julio Flor eta Jose Fernandez de la Sotak hartu zuten hitza, Miriani Roman soinu-jolearen laguntzarekin.

PLAZA BETE

Zubiaur plazan eman zioten amaiera ekitaldiari. Plaza jendez lepo zegoela igo ziren oholtzara Batasuna taldeko ordezkariak, Rafa Muntion orozkoarra eta Lucia Socam musikaria edota Agate Deuna abesbatza. Argazki galeria eta bideo kronika ikusgai daude aiaraldea.eus atarian!



argazki erreportajea

Ruben Lopez Ranero amurriarra Berlinen bizi da duela 4 urte eta bere arteari esker bizitzea lortu du. Zcentrifuga lokalean dauka tailerra hainbat kolektiborekin eta kartelak

seriagrafiatzen ditu bertan, besteak beste. “Zuk zeuk egizu” filosofian oinarrituta bizitzea lortu du Amurriarrak, eta talde underground famatuekin egin du lan.

Ruben Lopez, Amurrioar bat Berlingo undergroundean



KOKALEKUA

Ostkreuz metro geltokitik jaitsi eta Zcentrifuga izeneko diskotekara jotzen dugu. Ez da zaila topatzea. Berlingo txoko askotan agertzen diren street art itxurazko eraikinetan bezala, lokalak ordenik gabeko kolore eta apaingarri ugari ditu.

HARRERA

Telefonora deitu eta gero, Ruben Lopez amurriarrak irekitzen du atea. Tintaz zikinduta dago, lanean harrapatu baitugu. Izan ere, Ruben ez doa Zcentrifugara ez dantzatzera, ez edatera, baizik eta serigrafian lan egitera. Amurriarrak Orbeo Etxeko Serifly kolektiboan hasi zuen bere ibilbidea tinta eta pantailekin kamiseta eta partxeak egiten. Bartzelonan ere ibili zen tarte batez ikasten eta bertako etxe okupatu ospetsu batean bizitzen.



TAILERRA

Duela 4 urte bizi da Ruben Berlinen. Han topatu du lekua; ez bakarrik familia sortu duelako han, baita bere lanak saltzeko eta horri esker bizitzeko aukera izan duelako ere: “Hemen jendeak gogoko ditu eskuz serigrafiatutako lanak biltzea”.

Zcentrifugan dauka tailerra Rubenek: “Kolektibo batek kudeatzen du diskoteka, eta eremuaren barruan eraikin bat ere dutenez, beste kolektiboek alokatzen diete”. Kolektibo nahiko elkartzen dira etxe horretan. Rubenek, edonola ere, beste kolektibo batean parte hartzen du, “Unter Druck”-en, hain zuzen. Horren muina ez dago Zcentrifugan bertan, baizik eta beste auzo batean.

Han bulegoak eta gelak dituzte kalean bizi diren pertsonak babesteko eta laguntzeko: “Kartelak guk egiten dizkiegu eta urtean behin, neguan, garai oso gogorra denez eta bitartekoak behar dituztenez, enkantea egiten dugu. 2.000 edota 3.000 euro eskuratzen ditugu eta dibertigarria da”.

argazki erreportajea



ZUK ZEUK EGIZU

“Berlinen posible da Do It Yourself -Zuk Zeuk Egizu- filosofian oinarritutako negozioa irekitzea”, aipatzen du Rubenek. Hala ere, ez da lan samurra. Adibidez, asko saltzen dituzte kontzertuen eta jaialdien kartelak eta posterrak, baina horretarako ezinbestekoa da taldeekin harremanak izatea: “lanaren zati handi bat da idaztea eta etengabe galdetzea. Harreman egokia izan behar duzu, ideia gustuko izan behar du taldeak eta, behin kartelak eginda, kontzertuetan saltzen ditugu”.

Rubenek talde underground famatuekin lan egin du: Mudhoney, Neurosis, Melvins, Kreator edo Swans-ekin, adibidez. Banden arabera atseginagoa edo okerragoa da horretan aritzea: “Batzuk eskuratzen den diruaren erdia eskatzen dizute. Beste batzuek ez dizute ezer eskatzen, edo oso gutxi exijitzen dute. Ministry taldearekin ezuste oso ona izan nuen, adibidez. Ez zidaten ezer eskatu, merchandising saltzaileen %20a baino ez. Beti ez duzu baiezkua jasotzen”.

BIZIMODUA

Orokorrean, uste dute Alemanian jende gehiagok erosten duela horrelako artea diru gehiago dutelako. “Jendea 100 euroekin joaten da kontzertuetara”, argitzen du amurriorak.

Hala eta guztiz ere, gogorra da euren sorkuntzekin aurrera egitea, lortzen badute ere. “Ez daukagu egun librerik, beti egon behar zara adi mezuak erantzuten dizkizuten ikusteko, edo sare sozialak eguneratzen”.

Ruben Berlinera heldu zenean, adibidez, denda guztiak bisitatu zituen bere materialak saltzeko. Hainbat produktu probatu ditu eta, kartelez gain, poltsak ere asko saltzen dituzte: “jendea kontzertuetara poltsorik gabe doa eta konturatzen direnerako bat behar dute diskoak eramateko”.



AGURRA

Jaialdi batentzako kartelak ekoizten daude. Lana patxadaz amaitu dezaten, agur esan eta etxeari azken begirada ematen diogu barrutik.



agenda

2019/09/25
2019/10/08



Hiru egunez luzatuko da Euskararen Jaia

Datorren irailaren 27 eta 28an (ostirala eta larunbata) ospatuko dute Laudioko Euskararen Jaia. Ostegunean, aldiz, Euskaraldiaren aurkezpena egongo da plazako erabilera anitzeko artoan arratsaldeko 18:00etan, udaleko Euskara Arloak antolatuta. Ostiralean umeentzako jarduerak izango dira nagusi, hainbat tailer, jolas eta puzgarri egongo baitira, Diskotxean- roaren 22an egingo dute: poesia emanaldia egongo da Amurrio Antzokian. “Suizidioa saihesteko lan egitearen garrantzia azpimarratzea”. Hori izango da egingo dituzten jardueren xede nagusia, gaiaren inguruan dauden “mi-toak” eraisteko.

Ekintza ugari Asasamen eskutik, “bizitzarekin bat egiteko”

Egitarru oparoa prestatu du Asasam elkarteak urrian eta azaroan, “Bizitzarekin bat egin” lemapean, Buru Osasunaren Munduko Eguna ospatzeko. Urriaren 10ean jarri dute lehen zita. Ekitaldi instituzionala egingo dute Lamuza parkeko Kasi-noan. Azken ekintza, ordean, azaroaren 22an egingo dute: poesia emanaldia egongo da Amurrio Antzokian. “Suizidioa saihesteko lan egitearen garrantzia azpimarratzea”. Hori izango da egingo dituzten jardueren xede nagusia, gaiaren inguruan dauden “mi-toak” eraisteko.



Dena prest Berazako jaiez gozatzeko



Irailako azken egunetan ospatuko dira Berazako San Migel jaia. Ostegunetik igandera arte luzatuko da parranda Orozkoko auzoan, egitarau oparoarekin. Hainbat berrikuntzekin datoz aurtengo festak. “Zapatuan bingoa dugu bazkalostean eta baita musika emanaldi sorpresa ere”, jakinarazi du Gotzone Olabarriak. Bizilagunen artean antolatzen dituzte jaia, auzolanean.

Herri bazkaria

Larunbatean herri bazkaria egingo dute. Tiketak Itxina tabernan eta Zubiaur kafetegian eskuratu daitezke irailaren 23a baino lehen, 18 euroren truke.

Egun osoko egitaraua Mikel Deunako jaietan



Larunbatean -irailak 28- ospatuko dituzte Mikel Deunako jaia Urduñan. Goize-tik gauera arte luzatuko da egitaraua, makina bat ekin-tzarekin. Tortilla txapelketa, umeentzako jolasak, goitibe-ra lasterketa eta kontzertua egongo dira, besteak beste.

MUSIKA

09.27

Ostirala
19:00 LAUDIO
LAUDIOKO MUSIKA
BANDAREN IKASTURTE
HASIERAKO KONTZERTUA
San Pedro eliza

09.27

Ostirala
20:00 LAUDIO
JON BASAGUREN
“Arrastiak faktorian”
ekimenaren baitako
kontzertua. Sarrera 3 euro
(7 euro afarlarekin)
Faktoria

KIROL JARDUERAK

09.28

Larunbata
8:00 ARRANKUDIAGA
ARRANKUDIAGAKO XVII.
MENDI IBILALDIA
Herriko plaza

09.28

Larunbata
11:00 ARRANKUDIAGA
BTT PROBA
Arabako Txirindularitza
Eskolaren lasterketa
Bañuetaibarreko zelaian

09.29

Igandea
10:30 AMURRIO
MINBIZIAREN AURKAKO
II. MARTXA
Juan Urrutia plaza

HAURRENTZAKO JARDUERAK

09.27

Ostirala
18:00 LAUDIO
LUR USABIAGA IPUIN
KONTALARIA
Udal Liburutegia

BESTELAKOAK

09.26

Osteguna
18:30 LAUDIO

09.28

Larunbata
AMURRIO
BANUETAKO JAIK
9:00 // Mendi irteera
10:30 // Moto klasikoen
II.Erakustaldia
11:00 // Arabako
txirindularitza elkartearen
lasterketa
11:00 // Irriaketa Amurrio
Patinen eskutik
11:00 // Bañueta II.Patata
tortilla txapelketa
12:00 // Omenaldia
13:00 // Herri kirolak Bizindar
Artziniegako taldearekin
14:30 // Janari herrikoa:
paela eta postrea (4 euro)
16:00 // Erromeria
Victorrek
16:00 // Karta partidak
16:30 // Mus txapelketa
16:30 // Aldi bereko xake
partidak Erlantz Miguelezekin
17:00 // Aurpegi margotzea,
Aspaltzaren eskutik
18:00 // Txokolate jana
19:00 // Umeentzat
diskodantza
21:00 // Sevillar dantzak
(Enla akademia)
22:00 // Afari herrikoa:
hirugiharra, txorizoa eta
odolostea
22:00 // Kontzertuak: Mina
Longo, Diskodantza
Bañueta auzoa

09.28

Larunbata
LAUDIO
EUSKARAREN JAIA
10:00 // Baseritar Azoka,
bertoko ekoizleekin
12:00 // “Urrezko Makila”
ekitaldia
12:30 // Dantza ikuskizuna,
Itxarkundiak antolatua,
jarraian kantu-jira egongo da
Nafarroa K.T.taldearekin.
15:00 // Herri bazkaria Aldai
plazan
17:00 // Umeentzako jolasak,
Kiriñok antolatua
18:30 // Dantza plaza, Patxi
Perez eta konpainiarekin
20:30 // Djak, jaia
amatera
Herriko plaza

09.28

Larunbata
URDUÑA
MIKEL DEUNAKO JAIK
11:00 // Txupinazoa eta
txosnaren irekiera
11:30-14:00 // Puzgarriak
eta aurpegi margoketa,
umeentzat
11:00 // Patata tortilla
txapelketa
17:30 // Txirindularitza



Kartelera



FAKTORIA
(Laudioko Industrialdea)
Napar Death
URRIAK 4
OSTIRALA (3 euro, afariarekin
7. Haurrek sarrera doan eta afa-
riarekin 3 euro)
20:00



LAUDIOALDE
ARETOA
Agur Etxebeste!
URRIAK 5 eta 6
LARUNBATA ETA IGANDEA
(3 euro)
17:30 / 20:00



LAUDIOALDE
ARETOA
Erase una vez en... Hollywood
URRIAK 12
LARUNBATA (3 euro)
17:30 / 20:00



AMURRIO
ANTZOKIA
El Rey León
URRIAK 13
IGANDEA (3,75 euro)
17:30



AMURRIO
ANTZOKIA
Toy Story 4
URRIAK 6
IGANDEA (3,75 euro)
17:30



AMURRIO
ANTZOKIA
Erase una vez en... Hollywood
URRIAK 6 eta 7
IGANDEA ETA ASTELEHENA
(5 / 3,75 euro)
19:30 / 20:00



LAUDIOALDE
ARETOA
Elkano: Lehen mundu bira
URRIAK 13
IGANDEA (3 euro)
17:30



AMURRIO
ANTZOKIA
Quien a hierro mata
URRIAK 13 eta 14
IGANDEA ETA ASTELEHENA
(5 / 3,75 euro)
19:30 / 20:00

Bañuetako jaiak,
auzoa iraultzeko prest

Urtaro aldaketa ospatuko dute Bañuetako jaietan. Irailaren 27an eta 28an makina bat jarduera antolatatu dituzte; jai tematikoa, bestea beste. "Joan 8oko hamarkadako arropa zaharra kamarotetik jaisten, bertan itxarongo zaituztegu dantzan egiteko prest!", adierazi dute antolatzaileek.

EUSKARALDIAREN AURKEZPENA
Udaleko erabilera anitzeko aretoa

09.26 Osteguna
18:30 OROZKO
BERAZAKO JAIETAKO LEHEN SUZIRIA
Beraza auzoa

09.26 Osteguna
MENAGARAI
MENAGARAI ETA BEOTEGIKO JAIAK
19:30 // Jaien hasiera
Kanpai jotzea, suziriak piztea eta txorizo dastatzea
20:00 // Txokolate jana
21:00 // Su artifizialak

09.27 Ostirala
MENAGARAI
MENAGARAI ETA BEOTEGIKO JAIAK
12:00 // Meza Santua
13:00 // Luntxa eta zozketa herrikoia

09.27 Ostirala
AUDIO
EUSKARAREN JAIA
17:30 // Umeentzako tailerrak
19:00 // Diskotxantxa
20:00 // Parrila jana
20:30 // Laburmetralien emanaldia
Herriko plaza

09.27 Ostirala
OROZKO
BERAZAKO JAIAK
17:30 // Birziklatu eta jolasteko tailerrak
18:30 // Magia ikuskizuna eta txokolatea
21:00 // Placton taldearen kontzertua
Beraza auzoa

09.27 Ostirala
19:00 OKONDO
SAGUZARREN GAUA
Kultura Etxea

09.27 Ostirala
AMURRIO
BAÑUETAKO JAIAK
19:00 // Txupinazoa eta Alara dantza taldearen erakustaldia
19:30 // Pintxopotea Battuere batukadarekin
22:00 // Kontzertuak: Chiki Lora eta Hotel Ruido
Bañueta auzoa

13:30 // IRIKI poteoa auzoko tabernetatik
14:30 // Auzo argazkia
15:00 // Auzo bazkaria
18:00 // Goitibera jaitsiera
19:00 // Igel-toka eta txapela jaurtiketa txapelketak
21:00 // Herri parrillada
22:00 // Zozketa
22:30 // Kontzertua
Hirian

09.28 Larumbata
LEKAMAÑA
LEKAMAÑAKO JAIAK
12:00 // Jalaren hasiera
16:30-20:00 // Umeentzako jokoak, puzgarriak, karsak eta aurpegi margoketa tailerrak, plazan
18:00 // Haurrentzako txokolatada
19:00 // Igel-toka txapelketa
20:30 // Doako odoloste-jana
20:30 // Berbena Ganeko taldearekin
Herrian

09.28 Larumbata
AUDIO
GAZTETXEAREN ALDEKO EGUNA
14:30 // Bertso bazkaria
16:30 // Olinpiadak
21:30 // Talo jana musikatua
22:30 // Kontzertuak: Katez, Patx&Run eta Droga Purpura
Gaztetxean

09.28 Larumbata
OROZKO
BERAZAKO JAIAK
14:30 // Herri bazkaria
17:30 // XXIV. Mus Azkar
Txapelketa
18:00 // Kontzertua: Folk lagunak
21:30 // Kontzertua Joselu Anayak taldearekin
Beraza auzoa

09.28 Larumbata
BEOTEGI
MENAGARAI ETA BEOTEGIKO JAIAK
17:00 // Umeen bolo txapelketa
18:00 // Tokiko bolo txapelketa
19:00 // Alara Dantza Taldea
20:00 // Parrillada
20:30 // Berbena: DJ ZABAL
22:00 // Areto dantzak eta zozketa
23:30 // Txokolate jana

INFO +
aiaraldea.eus

Kultura

“Euskaldunok errelatoaren borroka irabazi behar dugu, horretarako idatzi dut eleberria”

KEPA BARAÑANO (Laudio, 1959) *HI ETA NI ADISKIDE BETI* LIBURUA PLAZARATU BERRI DU. LAUDION GIROTU DU LIBURUA, BENETAN JAZOTAKO HAINBAT GERTAERA OINARRITZAT HARTUTA.



Testua eta argazkia
Txabi Alvarado Bañares

Laudion girotu duzu liburua. Zer dela eta?

Laudion eta inguruan gertatutako gauza batzuk agertzen dira eta horiek harilkatuz osatu dut nobela, besterik ez.

Benetako gertaeretan oinarritutako istorioa dela esango zenuke, beraz?

Esaera eta gertaera batzuk bai, bene-benetakoak dira. Beste batzuk apainduak edo aldatuak daude. Baina sus-traian bai, benetako istorio batzuk daude.

Zein da benetako istorio horiek josten dituen haria?

Haria pertsonaia da. Francoren garaian Espainiatik etorritako etorkin bat da eleberraren protagonista. Bere istorioa kontatzen du liburua: zer nolako giroa topatu zuen hemen, nola sartu zen poliki-poliki gure giro hartan

eta zer nolako hika-mikak sortzen ziren hona etorritakoen eta hemengoaren artean. Hari horretatik tiraka nobela moduko bat osatu dut. Bukaera ez dakit pesimistegia ez ote den, baina nik horrela ikusten dut.

Zergatik kontatu nahi izan duzu istorio hori?

Helburu batzuk izan ditut. Gaur egun badaukagu Euskal Herrian “kontakizunaren borroka” deritzona, gure historia nork kontatu behar duen... ba nire ustez euskaldunok kontatu behar dugu gure historia, “errelatoaren borroka” irabazi egin behar dugu. Horri begira ekarpena egitea izan da nire helburuetako bat, garrantzitsuena. Guk kontatu behar ditugu hemen gertatutakoak, bestela beste batzuek kontatuko dutelako eta hori ezin dugulako inondik inora onartu.


Beste aldetik, euskarari begira ere izan dut helburu bat. Oso euskara berezia baliatu dut, jostera aldetik ezohikoa eta hitz berri batzuk sartuta. Euskararen egoera salatu

nahi izan dut modu horretan. Euskara degradatzen ari dela uste dut, neurri handi batean. Erdararen morroi bihurtzen ari gara, eta nik horri aurre egin nahi izan diot, nire iritziz hori ez baita bide egokia. Euskarari prestigioa eman behar diogu eta askotan ez dugu hori egiten. Erdarazko esaldi batzuk ere jarri ditut liburuan, akatsez beteak. Jarri ditudan akats horiek onartezinak dira denon ikuspegitik. Baina nire galdera honakoa da: zergatik onartu behar ditugu euskaraz egiten diren beste hainbat eta hainbat akats?

Tortillari buelta eman nahi izan diozu, beraz.

Horixe da. Euskaraz akats asko onartzen ditugu, erdaraz onartzen ez ditugunak. Eta hori zergatik? Nire ustez, euskararekiko begirune faltagatik, eta gure hizkuntzari begirunea izan behar diogu. Liburuetan askotan ikusten ditudan jostera akatsak, adibidez, nik ez ditut onartzen, gazteleraz ez lirakeelako inoiz onartuko.

kultura



“Francoren garaian Espainiatik etorritako etorkin bat da eleberriaren protagonista”

Era berean, euskaraz geroz eta gutxiago irakurtzen dela entzun izan ohi dugu. Hori hala bada, geroz eta gehiago sustatu behar dugu irakurzaletasun hori. Horretarako, euskaraz irakur dezagun, euskaraz idatzi behar dugu, alde guztietatik: idazle onek euskaraz idatzi behar dute, baina idazle kaskarrok ere hala egin behar dugu.

Zer gertakari izan dituzu hizpide eleberrian?

Nobela Laudion kokatua dagoen arren, kontatzen diren istorio batzuk beste toki batzuetan gertatutakoak dira. Baina Euskal Herrian gertatutako hainbat kontuk eragin handia izan dute Laudion.

Liburuan agertzen diren beste kontakizun batzuk, aldiz, herrian bertan jazotakoak dira. Inoiz aipatzen ez diren gertaerak dira. Horietako batzuk hain ditugu ahaztuak, ni ere dudatan ibili naizela, benetan gertatutakoak edo asmatutakoak ziren argi ez nekielako.

Zeintzuk dira gertaera horiek?

Laudioko atari batean hilik agertu zen pertsona baten kasua, adibidez. Egoera ilun batean agertu zen, Guardia Zibilaren kuarteletik oso gertu. Nik behintzat ez dakit ezer kasu horri buruz, bere garaian entzun nuena baino.

“On Kixote Mantxakoa liburua euskaratu nuen. Horrez gain beste liburu bat ere badut idatzita”

Liburuaren hasieran agertzen den argazkia Gasteizen hil zituzten langileena da. Omenalditxo bat egin nahi nien. Atzeko aldean, Altsasuko gazteen argazkia dago. Euren aldeko aldarria ere bada liburua. Horregatik, noiz-bait lan honekin dirurik irabaziko banu eurengana bideratuko nuke, merezi dutelako.

Dokumentazio lanik egin duzu liburua osatzeko?

Ez. Gauza batzuk begiratu ditut, noski. Baina ez dut gehiegi sakondu. Hau eleberri hutsa da. Behin irakurrita, bakoitzak jakingo du zer pentsatu.

Liburua zuk zeuk argitaratzea erabaki duzu.

Bai, baina beste aukerarik ez nuelako. Nik ez dut inolako harremanik argitaletxe eta idazleekin. Bide horretatik ez dut laguntza handirik aurkitu, baina bilatu ere ez dut bilatu. Internet bidez eskatuta inprimatu ditut aleak. Zabalpena izan ohi da pausorik zailena. Nik adiskide eta ezagunen artean zabaldu dut liburua, baina ez dut gehiago zabaltzeko aukerarik. Bi tabernetan utzi dut liburua, nahi duenak irakurri dezan. Ez dut dendetan salgai jarri.

Iñarrondo ezizenarekin sinatu duzu liburua. Zergatik?

Ez dudalako nire izena agertzea maite. Baina horrelako zerbait egiten duzunean badakizu jende guztiak jakingo duela azkenean nork egin duen. Iñarrondo izen berezi xamarra da niretzat, ni bertakoa naizelako, Leziagatik harago dagoen sakana da. Bertan bizi izan naiz eta leku berezia da niretzat. Aspaldi erabilitako ezizena da eta oraingoan ere erabili dut, besterik gabe.

Honakoa ez da idazten duzun lehen liburua.

On Kixote Mantxakoa liburua euskaratu nuen. Hori da aditzera eman den bakarra, baina beste liburu bat ere badut euskaratua, aspaldidanik. Beste eleberri bat ere badut, orain plazaratu dudana baino zaharragoa dena, baina baita ulertzeko zailagoa ere, sakonagoa ere bai. Horregatik ez dut argitaratu. Orain plazaratu dudana liburuak duen harreraren arabera baloratuko dut lan hori kaleratu edo ez. Baditut beste eleberri batzuk erdizka eginak daudenak. Euskaraz idaztea atsegingarria da niretzat, hobby moduko bat da niretzat.

Kultura

Algarabia taldeari buruzko artikulua plazaratu du Txani Rodriguezek Jot Down-en



Artikulua ilustratzeko baliatutako argazkietako bat. Mstyslav Chernov

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Laudioko Algarabia dantza taldea Jot Down aldizkari ospetsuko artikulua baten protagonista bilakatu da, Txani Rodriguez idazlearen eskutik. Duela gutxi zabaldu dute testua hedabidearen webgunean. “Paperean, aldiz, duela hilabete batzuk argitaratu zuten, Euskal Herriari buruzko ale batean”, zehaztu du Rodriguezek.

Beste hainbat idazlek ere prestatu zituzten testuak mo-

nografiko horretarako: Bernardo Atxagak, Toti Martinez de Lezeak eta Karlos Zurutuzak kasu. “Gai historiko edota etnografikoak landu zituzten gehienek”, azaldu du idazle audioarrak.

Horregatik erabaki zuen bere bere herriko flamenko taldeari buruz idaztea, “hori ere Euskal Herriko historia delako. Aberasgarria iruditu zitzaidan”. Estilo literarioa baliatu du Aiaraldeko sortzaileak bere artikuluan, “istorio-formatuko testuak baitira Jot Down aldizkariak lantzen dituenak”.

Irakurketa kluba

Bi irakurketa klub eskainiko ditu Txani Rodriguezek aurtengo Laudioko Udal Liburutegian, euskaraz bata eta gaztelaraz bestea. Klubaren egitura “nahiko informala” izango dela aurreratu du Rodriguezek. “Nik sarrera txiki batekin egingo dut lehenbizi, liburuaren eta idazlearen nondik norakoak azaltzeko. Galderak egingo ditut gero, guztien artean erantzuteko”. Ariketa “atsegina” izango dela uste du idazle audioarrak.

Chemnitzeko operako zuzendari egoiliar nagusi izendatu dute Diego Martin Etxebarria

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Operaren munduan bide oparoa egiten dihardu Diego Martin Etxebarria amurriarra. Iragan abuztuaren 31n estreinatu zen Alemaniako Chemnitz hiriko operako zuzendari egoiliar nagusi gisa. Robert Schumann Philharmonie orkestra zuzendu zuen emanaldi horretan. Orain arte zituen karguekin uztartuko du Etxebarriak bere eginkizun berria. 2016. urtetik darama Krefeld eta München-gladbach antzokietako zuzendari egoiliar nagusi gisa lan egi-




Opera zuzendaria da Diego Martin Etxebarria. D.M.E

ten. Horrez gain, hainbat kontzertu eskaini ditu Estatu Espai-

nianrean edota Kolonbian, zuzendari gonbidatu gisa.

_zinema kritikak



TXETXU URKIJO

Once Upon a Time in... Hollywood



Knoxvillen munduratu zen Quentin Tarantino zinemagile handiaren azken lana gomendatu nahi dizuet, “Once Upon a Time in... Hollywood” (2019) izenekoa, alegia. Film honen alde esateko dudaren lehenengo kontua hau da: ikusteko izugarritzko gogoan nuen arren, askotxo gustatu izan zaidala. Eskuarki zinta batekiko itxaropen handia dugunean kale egiten digu, ez da hau nire kasua izan, ez behitatzat oraingo honetan. Ederto girotutako lan baten aurrean gaude, non aktoreen lana ona den. Ohi duen bezala, Tarantinok kamera maisutasun handiz mugitzeaz gain, leku egokienean kokatzen du ia beti. Gainera, istorioa kontatzeko erritmo ezin erakargarriagoa darabil Tennesseekoak. Nire ustetan behintzat, zuzendari amerikarrak ez du pelikula txarrik. Hala ere, lan hauen artean alde egon badago. Nire iritziz, bederatzigarren den zinta hau ez da bere lanik onena, baina duda barik, egungo karteldegian dagoen eskaintza kontuan izanda, zinemara joateko aukerarik egokienetakoa da gaur-gaurkoz.

Amaitzeko, Brad Pitten karakterizazioa nabarmentzeko dela azpimarratu nahi nuke, nolako aktoreen ondoan jarduten den gogoan izanik, meritu handikoa dena.

Pelikula hau urriaren 6 eta 7an proiektatuko da Amurrio Antzokian eta 12an, aldiz, Audioalden.

Toy Story 4



Zinta hau ikustera hurbildu nintzenean susmo txar asko nituela aitortu behar dut. Izan ere, ahaztezin bilakatu diren jostailu hauen inguruko trilogia ezin borobilagoa iruditu zait beti.

Ez nuen uste, hortaz, laugarren pelikula bat beharrezkoa zenik, inondik inora. Dena dela, filma ikusitakoan, errezelo hauek funtsik gabekoak zirela egiaztatu nuen.

Laugarren atal honen erantzule nagusia Josh Cooley zuzendari amerikarra dugu. Kontuan hartuta hau dela zuzendu duen aurreneko film luzea, borobildutako lana nabarmentzeko modukoa dela esan beharra dago.

Egia da, bestalde, eskarmentu handia duela Pixar ekoiztetxean, baina beti bestelako lanetan, ez zuzendari gisa; bi film labur baino ez ditu borobilduta Pixarren lan hau burutu aurretik.

Onartu behar da, hala ere, heredatu dituen pertsonaiek horren nortasun handia dutela, non eurekin lan egitea errazago izan behar duen.

Hori bai, gerta daiteke hau berau bi ahoko arma izatea, jendeak pertsonaia hauen aurreko menturak buruan ondo errotuta ditu eta.

Pelikula hau urriaren 6an proiektatuko da Amurrio Antzokian.

Iturgintza, zure etxebizitzaren zainen zaintza

Etxebizitza baten funtzionamendu egokirako funtsezkoa da hoditeria egoera onean egotea. Garrantzitsua da matxura txikiei merezi duten garrantzia ematea, etorkizunean arazo handi bilakatu ez daitezen. Eskualdean badaude sortu daitezkeen erronkei aurre egiteko prest dauden profesional ugari.

Funtsezkoa da iturgintza etxebizitza baten funtzionamendu egokirako. Modu batean, iturginak etxebizitzaren kardiologoak direla esan ahal izateke.

Oso garrantzitsua da etxeko hoditeria egoera onean mantentzea, susto eta sorpresa desatseginak ekiditeko batez ere. Aldebatetik, hoditeria oso zaharra baldin bada komenigarria izan daiteke berriketa integral bat egitea, arriskuak izan daitezkeen material batzuk izan ditzakeelako (kobrea kasu). Hori da egin beharreko lehenbiziko gauza: instalazio guztiak gaur egungo segurtasun kanonak betetzen dituela ziurtatzea eta, hala ez bada, eguneratzea.

Eguneroko ohiturak

Dena dela, eguneroko ohiturek ere eragin handia izan dezakete hoditeriaren egoeran. Trabatzeak dira arazorik ohikoak, harraskatik eta komunitik janaria eta papera botatzeko ohitura dagoenean batez ere. Ohitura txiki horiek arazo handi bihurtu daitezke etorkizunean, matxura handiagoak sortu eta instalazioa izorratu dezaketelako.

Horregatik, berebiziko garrantzia du harrikoa egitean janari arrastoak kentzea, komunean erabiltzen diren zapiak paperontzira botatzea eta dutxatu ostean pilatzen diren ileak kentzea.

Oso garrantzitsua da etxeko hoditeria egoera onean mantentzea, susto eta sorpresa desatseginak ekiditeko batez ere

Era berean, komenigarria da hoditeria negurako prest izatea, izozteek eragin ahal dituzten matxurei hobeto aurre egin ahal izateko

Harraska bateko trabatzeak konpontzea ez da oso zaila, baina oso atsegina ere ez. Horregatik, profesional bati deitzea da aukerarik egokiena.

Era berean, garrantzitsua da etxeko ur-korrontea ixteko giltza non dagoen jakitea, ur-jario bat agertzen denean berehala eten ahal izateko.

Kontuz tanta-jarioekin

Garrantzitsua da baita ere tanta-jarioei adi egotea. Iturri batek tanta-jario etengabea baldin badu matxura handiago baten seinalea izan daiteke eta.

Negurako prestatzen

Urtaro aldaketek gorabeherak sortzen dituzte tenperaturan, eta horrek eragin zuzena izan dezake hoditeriaren egoeran. Izozteek matxura garrantzitsuak sortu ditzakete. Horregatik, komeni da hodiak termikoki isolatuta egotea, barrutik igarotzen den ura izotz bihurtzea ekiditeko.

Galdara

Era berean, beharrezkoa da galdara egoera onean dagoela bermatzea, neguaren erdian matxuratuko ez dela bermatzeko. Marruskadurak sortutako zaratak entzuten baditugu baliteke bonba matxuratua egotea. Galdararen azpian tanta-jarioa badago, aldiz, segurtasun balbula izorratua egon daitezkeenaren seinalea izan daiteke.



BAIMENDUN INSTALATZAILEA

**Iturgintza - Berogailua
Gasa - Aire girotua**


CASTRO

David Castro

Elxondo 24, Amurrio (Araba)
kaxysus@hotmail.com
676 02 33 93 - 685 26 69 31

www.fontaneriacaastro.com

 **URAGORRI S.L.**

**ITURGINTZA - BEROKUNTZA
GAS - AEROTERMIA**

945 041 395
671 624 250
654 056 953

Dionisio Aldama 3, 14. lokala
01470 Amurrio
adm.uragorri@gmail.com

 **IR**

**INSTALACIONES
RAGA IBARRONDO**

**- ITURGINTZA
- BEROKUNTZA
- GASA
- AIRE GIROTUA**

Jose Medinabeitia 1, Amurrio (Araba) · 945 30 37 35
ragaibarrondo@gmail.com · www.ragaibarrondo.com

 **Virtus
FONTANERÍA**

 **Berokuntza**
 **Iturgintza**
 **Klimatizazioa**
 **Komunitateetan
mantetze-lanak**

645 71 52 89 LAUDIO
fontaneriavirtus@gmail.com

Historia



Orozkoar bat Matthauserenen

Matthauserenen-Gusen kontzentrazio esparrua askatu zutenean hartutako irudia. [Archive.org](https://www.archive.org)

Estatu Espainiarreko milaka pertsona zendu ziren Matthauseren-Gusenen. Berriki argitaratu dituzte guztien izen-abizenak. Ramon Guerrero Fernandez orozkoarra ere egon zen nazien kontzentrazio esparru horretan, baina bizirik ateratzea lortu zuen, ia hiru urte preso eman eta gero.



Testua **Txabi Alvarado Bañares**

Matthauseren-Gusen kontzentrazio esparruan hildako Estatu Espainiarreko herritarren zerrenda plazaratu du Espainiako Gobernuak udan. Abuztuan argitaratu zituzten pertsona horien izen-abizenak Estatuko Al-

dizkari Ofizialean, 4.427 guztira.

Ramon Guerrero Fernandez orozkoarra ez da zerrenda horretan agertzen, bera bizirik ateratzen nazien kontzentrazio esparru horretatik. Espainiako Kultura eta Kirol Ministerioaren webgunean topatu daiteke Aiaraldeko bizilagun horri bu-

ruz dagoen informazio apurra. 1903ko maiatzaren 3an jaio zen. Handik hamarkada batzuetara Hirugarren Reicheko presondegi batean amaitu zuen, arrazoi eta gorabehera ezezagun batzuk medio. Ez dakigu Guda Zibilean borrokatu ostean Frantziara ihes egin eta naziek atxilotuta amaitu zuten milaka errepubli-

Ia hiru urte igaro zituen Orozkoko bizilagunak kontzentrazio esparruan preso

karretako bat izan ote zen (hipotesi posibleena hori den arren). Dakigun bakarra honakoa da: 1942ko abuztuan eraman zutela Mauthausenera, 12103 matrikula zenbakiarekin.

Ia hiru urte igaro zituen Orozkoko bizilagunak bertan, 1945eko maiatzaren 5era arte, orduan iritsi baitziren libera-

1903

1942

1945

1903ko maiatzaren 3an jaio zen Ramon Guerrero Fernandez, Orozkon. Ez dago bere gartzaroari buruzko daturik

Naziek preso egin eta Matthauseren-Gusen kontzentrazio esparrura eraman zuten



1945eko maiatzean geratu zen libre orozkoarra, ia hiru urte preso eman ostean

historia

tuak kontzentrazio esparru-
ra, bertan zeuden presoak as-
katuaz. Une horretan aterata-
koa da erreportaje honetako ar-
gazki nagusia. Atearen gainean
pankarta bat ikusi daiteke, “Los
españoles antifascistas saludan
a las fuerzas liberadoras” dioe-
na. Argazkian soldaduei agur-
tzen agertzen diren pertsonen
artean al dago Ramon Guerrero
Fernandez? Batek daki.

San Pedroko gudaria
Orozkoko bizilagunaren ka-
suan oso eskasa da dagoen in-
formazioa, baina beste kasu ba-
tzuetan datu askoz mamitsua-
goak topatu daitezke, San Pedro
mendiko indusketetan eginiko
aurkikuntzaren kasuan esate-
rako. Manuel Mogrovejo Arnaiz
miliziano zornotzarraren iden-
tifikazio txapa topatu zuten ber-
tan EHUKo arkeologoek.
Haritik tira eginez lortu zu-
ten borrokalari komunista ho-
rren istorioa osatzea: 17 urtere-
kin sartu zen Leandro Carro ba-
tailoian eta San Pedro mendian
aritu zen borrokan, besteak bes-
te. Ondoren, hainbat gorabehe-
ren ostean, Frantziara egin zuen
ihesi, baina naziek harrapatu eta
Mauthausen-Gusenera eraman
zuten. Ramon Guerrero Fernan-
dez bezala, Manuel Mogrovejo
Arnaiz ere bizirik atera zen kon-
zentrazio esparrutik.


Kasu gehiago
Kasu gehiago ere badaude. Al-
berto Martinez Gutierrez-Bar-

quin artziniegarrak Matthau-
senen amaitu zuen bere senide
bati buruzko artikulua plazara-
tu zuen duela zenbait hilabete
Arseniega historia blogean. Ber-
tan Gurseko kontzentrazio espa-
rrura eraman zuten artziniegar
baten izena ere aipatzen da: Feliz
Lacuesta Isasirena. Historia asko
geratzen da oraindik lurperatu-
ta, noiz azaleratuko zain.

DATUTAN

4.427
Estatu
Espainiarreko
lau mila
pertsona
baino gehiago
erail zituzten
Matthausen-
Gusenena

1945.
urteko
maiatzean iritsi
ziren aliatuak
kontzentrazio
esparru
horretara



Goian eta ezkerrean, Matthausenen-Gusenena hartutako irudiak. Behean eta eskuman, San Pedro mendian topatutako plaka. [Archive.org](#) eta [NIOD](#)

Kirola

Arrakastari helduz, geroz eta Trail gehiago antolatzen dira eskualdean. Larunbatean izan zen Arrankudiaga-Zolloko Traila, zortzigarrenez. Helduentzat ez ezik, haurrentzat

ibilbidea egokitu zuten; eta proba nagusian zeharkaldi motza (6km) eta luzea (14km) eskaini zituzten. Horrez gain, musika emanaldiekin hornitu zuten egitaraua.

Arrankudiaga-Zolloko Traila, herrikoitasunaren puntan



Testua eta argazkiak
Izar M. Cosgaya

"Parte hartzea da garrantzitsua". Hala zabaldu zuten gogoetarako lezioa lau haizetara, larunbatean Arrankudiaga-Zolloko Trail lasterketako aurkezleek. Kirol jarduera "modari" jarraiki, geroz eta ohikoagoa da mendi lasterketak antolatzea bailaran. Amurrio hasi zen lehenbizi, eta segidan batu zen Arrankudiaga-Zollo; duela 8 urte. Gerora, Arespalditza eta Okondo gehitu zaizkio Aiaraaldeko Trailen zerrendari.

Larunbatean -irailaren 21ean- izan zen Arrankudiaga-Zolloko proba. 200 lasterkari baino gehiago bildu zituen ekimenak: "Oso balorazio ona egiten dugu, oso pozik gaude". Haurren proban 50 korrikalari animatu ziren, eta helduenean 208: 153 ibilbide luzean (14km) eta 55 motzean (6km). Hala, 15:45ean abiatu ziren txikienak, adinaren arabera txandaka, eta herrigunetik -plazatik- itzuli bat edo gehiago eginez. Helduen txanda, berriz, 16:30ean izan zen. Mainer Urtaran Laresgoiti izan zen emakumeen artean bizkorrena, eta Diego Pascual Alcalde, aldiz, gizonenezkoen kategoriako azkarrena. Aiaraaldeko lehenbizikoa helmugaratzen Iñaki Isasi Flores izan zen, sailkapen orokorrean bigarren postua erdietsi zuen.

Julen Gorostizaga aritu da, besteak beste, txapelketa antolatzen. "73 boluntario daude, beraz, oso handia da herritarren inplikazioa", dio. Lehiatzeko baino, gozatzeko zita da, Gorostizagaren arabera. "Berezia da. Sekulako luntxa prestatzen dugu jendearentzat, garga-gardoa eta opariak ditugu guztientzat..."

Herrikoitasuna helburu

Herrikoia izateko helburua jarri zuten hasiera-hasieratik, antolatzailerak adierazi duenez: "Modan zegoenez, eta lan-taldeko batzuk mendian korrika egiten aritzen garenez, Arrankudiagan mota honetako proba bat antolatzea

pentsatu genuen. Eta, ikusita zer nolako jendeak hartzen duen parte, esango nuke helburua bete dugula". Inguruko korrikalariak ez ezik, "puntako kirolariak" ere hartzen dute parte, "gonbidapena bidaltzen diegu eliteko ordezkari

200 lasterkari eta 70 boluntario baino gehiago bildu zituen probak

ritza egon dadin ere". Dena den, jende guztia erantzuten egingarria den ibilbidea osatzeko joera dute: "Inguruko jendea da batez ere lasterketara etortzen dena, erronka txiki bat bezala markatzen duena trailaren eguna".

Ibilbidearen berezitasunez galdetuta, bidearen nolakotasuna aipatu du; mistoa baita. "Zati batzuk errepidea dira, eta beste batzuk mendi bideak. Egia da batzuk asfaltatutako zati gehiegi daudelako kexatzen direla... eta beste batzuk, aldiz, kontrakoagatik, mendi pistak direlako". Trailaren aitzakiapean herriko bideak eta pistak markatu eta zaintzen dituzte, "eta hori ere oso ondo dago, Ustrako presatik korrika egitea, adibidez, zoragarria da". Gainera, egunari indarra eta erakargarritasuna emateko aireko irudiekin bideoa osatuko dute, lehenbizikoz.

Traila bukatuta, Nafarroa Kantu Taldearen eta Patx & Run taldearen kontzertuak egon ziren. "Probatik harago doan eguna izatea nahi dugu. Aurten laguntzaileak eskertzea erabaki dugu, horregatik antolatu dugu kantupoteoa lehenbizi, eta kontzertuak ondoren. Horrela, boluntarioei eta taberna laguntzaileei egindako ekarpena eskertu diegu", erantsi du arrankudiagarriak.

10. edizioan zerbait berezia egingo dute, aurreratu duenez, "baina oraindik 2 urte falta dira".



UMEAK ERE NAGUSI

Adinaren arabera, txanda eta itzuli ezberdinetan bereizi zituzten partaideak. Hala, trailaz gozatzeko aukera izan zuten nola haurrek hala euren lagun zein familiekin.



208 LAGUN

Proba nagusian 208 korrikalari hartu zuten parte: 153 lagunek ibilbide luzean (14km) eta 55 pertsonak motzean (6km).

kirola**KULTURAK PRESENTE**

Euskaldunez gain, beste herrialde batzuetako partaideak ere animatu ziren probara. Kirolari eta publikoaren artean, adin eta jatorri aniztasuna izan zen nagusi.

**ESKUALDEKO TRAIL TALDEAK**

Banaka lehiatu arren, eskualdeko korrikalarien talde ugari batu ziren proban: Gualdetxu, Amurrio Trail, Orkatzak, Areta Trail, Aramendi...

**BOLUNTARIOAK**

70 herritar baino gehiago aritu ziren laguntzen Arrankudiagako plazako gunetan eta ibilbidean zehar. Aurten, gainera, ikus-entzunezkoetan koska bat gora egingo dute, drone bidez aireko irudiak grabatu baitzituzten.

TXAPELDUNAK

Emakumeen kategorian lehen hiru sailkatuak hurrenez hurren, Maider Urtaran, Ainara Urrutia eta Garazi Irazabal izan ziren. Gizonezkoen artean, berriz, Diego Pascual, Iñaki Isasi eta Iñaki Hormaetxe gailendu ziren. Argazki galeria osoa ikusgai dago aiaraldea.eus atarian!



Kirola

Udazkena, mendi ibilaldi luzeen garaia

Aurki izango dira Arrankudiaga, Okondo, Orozko, Urduña eta Laudioko mendi ibilaldiak. Gorobeiko proba, berriz, azaroaren 10ean izango da, Mendiko Lagunak taldeak adierazi duenez.



Testua **Izar Mendiguren Cosgaya**

Perretxikoak biltzeko ez ezik, mendian ibiltzeko garai ederra da udazkena. Ondo dakite hori eskualdeko mendi taldeek. Horren adibide dira datozen asteetan eskualdeko gailurretan barrera egongo den ekitaldi andana.

Lasterka aritzeko Arrankudiaga-Zolloko VII. Traila jokatu zen iragan larunbatean, eta mendi korrikalariek azaroaren 10ean izango dute hurrengo zita nagusia: Urduñako mendilasterketak. Hirugarren edizioa izango du Urduñako zitak, baina aurten nobedadeekin dator: ez da maratoirik izango, 29 eta 18 kilometrotako

bina proba baizik. Ibilbide luzea hautatzen dutenek 1.700 metroko desnibelari egin beharko diote aurre, eta gainontzekoek 950 metrokoari. Anartz Gonzalezek aurreratu duenez, ibilbideetan zenbait egokitzapen gauzatu dituzte, Gorobel mendilerroak Mendiko Lagunak zeharkaldia jasoko baitu egun berean (azaroaren 10ean).

Arrankudiaga-Zollo

Menditik oinez dabiltzanek, aldiz, hitzordu askoz gehiago izango dituzte udazkenean. Irailaren 28an Matxinkorta taldearen ibilaldia izango da eskualdeko egutegian lehenbizikoa. Hilabeteko azken larunbata aukeratu dute horretarako, eta bi ibilbide pro-

posatu dituzte: luzea (24,7km) eta laburra (12km). 8:00etan abiatuko da lehenbiziko proba, eta 9:00etan bigarrena. "Bakoi-tzak etxetik eraman beharko du hamaiketakoa", adierazi dute. Eguerdian, berriz, herri bazkaria eskainiko dute indarrak berreskuratzeko.

Okondo

Okondok hartuko dio lekuko hurrengo asteburuan, hots, urriaren 5ean. Ganekogorta mendiklubaren eskutik, 8:30etik aurrera herriko eta inguruetako tontorrek zeharkatuko dituzte. Arautegian zehaztu dutenez, 15 kilometroko zirkuitua izango da, frontoia izango duena abiapuntu eta helmuga. Bazkide zein federa-

Zazpi martxa egongo dira guztira, Arrankudiaga, Okondo, Artziniega, Orozko, Urduña, Laudio eta Amurrión

tuentzat 5€ balioko du txangoak, eta gainontzekoentzat 7€. Izen-ematea, ganekogortamk.blogspot.com helbidean egin behar da.

Orozko eta Urduña

Biharamunean izango da Orozko zeharkaldia, Itxinape taldearen eskutik. XXXI. edizioa izango dute aurten, eta iraupen luzeko ekimenaren ezaugarria mantendu dute.

Hala, 26 kilometro izango ditu etapa motzak, 31 ertainak eta 41 handiak. 7:30ean abiatuko dira mendizale guztiak Zubiaur plazatik. Besteak beste, Oderiaga eta Austegarmin edota Ipargorta bezalako gailurrak igaroko dituzte.

Zeharkaldi luzeena hautatzen dutenek, aldiz, Gorbeia guru-



tzean arnasa hartzeko aukera izango dute.

Astebete beranduago iritsiko da Txarlazo mendi taldearen txanda, urriaren 13an. Urtero gisa, ibilbide berriak prestatu dituzte. Txango txikiak 12 km izango ditu, eta luzeak 27 km. 8:00etan aterako dira Foru plazatik oinez asko ibiltzea nahi dutenak, eta Artomaña, Somo, Alto del Corral zein Estuñaga ezagutuko dituzte.

Martxa laburrera doazenek, berriz, Artomañanatik Untzagara joko dute, La Salvetik hiri-ira itzultzeko.

Laudion, aldiz, urriaren 27an egingo dute "Laudio Ibarra" ibilaldiaren XXXIX. edizioa. 7:30ean abiatuko dira mendizaleak.

Urrian eta azaroan egingo dira ibilaldi guztiak. Irekita dago proba gehienetan izena emateko epea

Artziniega eta Amurrio

Hilabete beranduago izango dira Artziniega eta Amurrioko ekimenak. Azaroaren 9an Artziniegako mugen arteko bira antolatuko du Ganzorrotz mendi taldeak. Biharamunean, berriz, Gorobelen XXXIII. mendi ibilaldia ospatuko dute Amurrioko Mendiko Lagunak elkarteak gidatuta. Ohi bezala, zirkuitu motza (11km), ertaina (25km) eta luzea (41km) egokituko dute mendilerroan barrena.

Zernahi gisaz, eskualdeko mendizaleek bestelako irteerak ere izango dituzte tontor berrietan egoteko. Izan ere, Matxin-korta taldeak zein Mendiko Lagunakek txango ugari iragarri dituzte udazkenerako ere.

Mendi martxak, dataz data



Arrankudiagako XVII. Mendi ibilaldia

Noiz: Irailak 28, larunbata
Non: Arrankudiagako plazatik abiatuta
Ibilbidea: Luzea (24.7km) eta laburra (12.1km)
Izen ematea: Irailaren 26ra arte

Okondoko VII. Mendi Ibilaldi Neurtua

Noiz: Urriak 5, larunbata
Non: Irabien kaletik abiatuta
Ibilbidea: 15 kilometro
Izen ematea: Urriaren 1era arte Internet bidez eta egunean bertan (8:00etik 8:30era)

Orozkoko Harana XXXI. Iraupen Mendi Ibilaldia

Noiz: Urriak 6, igandea
Non: Zubiaur plazatik abiatuta
Ibilbidea: Luzea (40 km) eta laburra (26 km)
Izen ematea: Itxinape.com atarian

Urduñako Mendi Martxa

Noiz: Urriak 13, igandea
Non: Foru plazatik abiatuta
Ibilbidea: Luzea (26 km) eta laburra (12 km)

XXXIX. "Laudio Ibarra" ibilaldia

Noiz: Urriak 27, igandea
Non: Herriko plazatik abiatuta
Ibilbidea: 24 kilometro

Artziniegako ibilaldia

Noiz: Azaroak 9, larunbata
Non: Artziniegako frontoitik abiatuta
Ibilbidea: Artziniegako mugetatik

XXXIII. Gorobel Ibilaldia

Noiz: Azaroak 10, igandea
Non: Juan Urrutia plazatik abiatuta
Ibilbidea: Motza (11km), ertaina (25km) eta luzea (41km)

Kirola

“Orozko Kup” txapelketa antolatu du Olgetan klubak, emakumeen paletari bultzada emateko. Iragan ostiralean hasi ziren norgehiagokak eta hilabete batez luzatuko dira. Sei bikote arituko dira guztira lehian. Olgetaneko kideen aburuz, sendo dago Orozkoko paleta harrobia: aurtan 7-8 jokalaria berri batu dira taldera.

Emakumeen paleta partida eskasiaren aurrean, “Orozko Kup” txapelketa antolatu du Olgetanek



Sei paleta bikote arituko dira lehian Orozkoko frontoian. Urriaren 26an izango da azken norgehiagoka. Aiaraldea.eus eta Mikel Isusi



Testua **Izar Mendiguren Cosgaya**

Olgetan elkarteak sustatu du ekimena, herriko paleta jokalariei urtean zehar norgehiagoka gehiago eskaintzeko. Andoni Olabarriaren esanetan, iaz izan zuten ideia: “Nesken paleta modalitateko partidak eta denboraldia laburrak dira. Urriaren amaiera aldera hasten dira, eta martxoan bukatu. Hutsune handia geratzen da txapelketa gabe federatuentzat”. Horregatik, otsailean herriko torneoa prestatzeko lanean hasi ziren: “Inguruko klubekin hitz egitea, klub bakoitzak bere torneo pribatuak antolatzea zulo horiek estaltzeko”. Alabaina, daten hautaketan zailtasunak izan dituzte, eta maiatzean egiteko asmoa zuten dinamika udazke-

nera atzeratu behar izan dute, “beste klubek data hori nahi zutelako”. Hala ere, elkarlanean osatu dute egutegia, elkarte bakoitzak garai bat aukeratuta.

Txapelketak abian

Hala, irailetik txapelketa ofizialak hasi arteko epea beteko dute Orozkon, “badakigu jendea ez dagoela nahi bezain entrenatuta goiz delako”. Horregatik, pizgarri gisa balio lezakeelakoan daude. Olgetanekoekin batera, Sopolako Kurene taldekoak, Gasteizko Adurzakoak eta Larrabetzuko Olarretakoak arituko dira. “Gonbidapenak bidali ditugu, eta dagoeneko zehaztuta daude bikoteak”. Ez da, ordea, batera prestatzen duten ekimen bakarra; Olgetanek, esaterako, Sopolako Hiru Erregeen Kopan hartzen du parte.

Orotara, sei bikote izango dira, eta liga formatuan jokatuko dute, “denek guztien kontra”. Bost jardunalditan bereizi dituzte partidak, bariku eta zapatuetan. “Txapelketa urriaren 26an bukatuko da. Festibal bakoitzean sei bikotek jolastuko dute egun berean”. Kiroldegian elkartuko dira horretarako, “gomazko pilotak abiadura handia du eta ezin da herriko frontoian egin”. Edozelan ere, jende guztia gonbidatu dute ikustera: “Kartel propioak egingo ditugu egun bakoitzerako, eta sare sozialetan ere zabalduko du. Ahalik eta hedapen handiena izatea nahi dugu jendea etortzeko”.

Aurreratu dutenez, berezia izango amaiera eguna, urriaren 26a. Batetik, finalerdiak eta finalak jokatuko dira. Bestetik, larrazko paleta partida bat anto-

Sei bikote lehiatuko dira guztira eta liga formatuan jokatuko dute. Norgehiagoka hasi da dagoeneko eta urriaren 26a arte luzatuko da

latuko dute. Gainera, Orozkoko Museoak bezperan Iñigo Gallagaren hitzaldia jasoko du, frontoien historiaren inguruan, “asteburu polita izango da”.

Harrobiaren egoera

Eskualdeko pala jokalarien harrobia zelan dagoen galde-tuta, Orozkon oso pozik daude, Olabarriak aitortu duenez: “Momentu honetan frontoia txiki geratu zaigu. Aurtengo taldeak egitean beste 7-8 pala jokalaria batu dira, pozik gaude baina arazo bihurtu da. Lehen txikiak zirenak nagusien kategoriara pasa dira, eta malabareak egin behar izan ditugu guztiak onartzeko eta entrenamenduak luzatzeko”. Izan ere, plazako frontoia eguraldiak baldintzatzen du, eta ezin dute baliatu, “eskaera eginda dago”.

KROSA

Prest du Arandok Urduña Hiria Herri Krosaren XV. edizioa, iganderako

Irailaren 29an izango da kirol proba, 11:30ean hasita. Aiaraldea hedabideak dortsal baten zozketa egingo du.



Hainbat modalitateko lasterketak egongo dira. Aiaraldea.eus

Testua
Izar Mendiguren Cosgaya

Arando Korrikalari Taldeak antolatu du 2019ko Urduña Hiria Herri Krosa. XV. edizioa izango da aurtengoa eta, ohi bezala, hiru proba nagusi egongo dira. 11:30ean izango da 10 kilometroko krosa. Izen-ema-

tea zabalik dago, internet bidez. Alabaina, irailaren 24an eta 25ean Alondegian ere egongo da apuntatzeko aukera.

Txikientzako ibilbidea ere prestatu du hiriko elkarteak, Hain zuzen, 1.500 metroko zirkuitua osatu beharko dute haurrek, eta txikienek 600 metrokoa.

Paraolimpikoen modalitatea
Horrez gain, paraolimpikoen modalitatea ere egongo da. 1.500 metroko itzulia egingo dute partaideek, 12:40ean abiatuta.

Aiaraldea hedabideak dortsal baten zozketa egingo du datorren ostiralean, irailaren 27an, 12:00etan.

PENTATLOIA

12. postua erdietsi du Manolo Hidakok Veneziako Beterano kategoriako Pentatloi Txapelketan

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Venezian igaro zuen iraileko bigarren asteburua Manolo Hidakok, Atletismo Master Beterano txapelketan parte hartzen. 12. postua erdietsi zuen bertan amurriarrak Pentatloian. "Oso pozik" dagoela nabarmendu du Hidakok, lehen zortzi postuak olinpikoak izan direlako eta uztaillean izena eman zuenean marka onena zuen 17. kirolaria zelako.



Venezian lehiatu da Manolo Hidalgo kirolari amurriarra. M.H

HANDBIKE

Jone Basterra garaile Euskadiko Handbike Txapelketako erlojupekoan



Urteak daramatza Jone Basterra handbikean lehiatzen. J.B

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Asteburu oparoa izan du Jone Basterrak. Larunbatean bigarren postua erdietsi zuen Espainiako Handbike Txapelketarako puntugarria den norgehiagoka batean. "Sei buelta eman nizkion zirkuitua-

ri. Lehen laurak oso ondo joan ziren, erritmo eta sentsazio onekin, baina hobeto amaitzeko indarrak falta izan zitzaizkidan", azaldu du kirolari orozkoarrak sare sozialetan.

Igandean, aldiz, denboraldiko lehen garaipena lortu zuen Basterra, Euskadiko Txapelketako erlojupekoa irabazita.

hitz zentroa

Karmen kalea 39,
01400 LAUDIO
Tel.: 94 672 63 91 / 656 74 27 22
hitz.zentro@gmail.com

**PROFESIONAL
EUSKALDUNAK
ZURE
ZERBITZURA**

Arabako Fordu Aldundiak BAIMENDUTAKO haurren garapenerako eta **ARRETA GOIZTIARRA** lantzeko zentroa

- Hurbileko zerbitzua
- Subentzionatuta
- Zerbitzu globala: logopedia, fisioterapia pediatrikoa, psikologia

EVA ALONSO LARRAZABAL
LOGOPEDA eta PEDAGOGA

EZTIZEN ALDAMA JAUREGI
FISIOTERAPEUTA PEDIATRIKOA

DIANA IBARGUTXI ABARRATEGI
OSASUN OROKORREKO PSIKOLOGOA / SEXOLOGO KLINIKOA



Herriko plaza



Iraia
Ume zein heldu, beti ateratzen diguzu irribarre! ZORIONAK!
Lagunak



Txaber
Zorionak Txaber!! Oso ondo pasa eguna. Musu erraldoi bat Mendibil familiaren partez!
Mendibil familia



Aure
Zorionak Aure!! Ederto pasa eguna. Musu handi bat Mendibil familia guztiaren partez!
Mendibil familia



**BIDALI
ZURE
ZORION
AGURRA!**

Idatzi zure mezua eta bidali argazkia agurrak@aiaraldea.eus eta Aiaraldea.eus atarian plazaratuko dugu. Ekainaren 12an argitaratuko da hamabostekariaren hurrengo zenbakia.

Denborapasak



Larri		Uria! Ospal!		Leku hartan		Maiz kezakzen dena	
Prakak		Irudi geo- metriko		Da, niri			
IZENA							
Izan, ukan							
				10			
				Zati datiteke			
Aritzea		18		Erregai botza			
DEITURA		Ahalmenak		Zintzoa			
				Indioaren ikurra		Kanpo, landa	
				Kontso- narioa		Ipar EH-ko gaur	
Basur, garo				Intsektu mota			
Materiala				Zeu			
				Ipurtzuloa			
				Iratzea			
Abere talde				Pl., beldur handia			
Juntagailua				Interjekzioa		Bokai erropikultua	
				Baita		Sugatzarra	
				Bokala		Bokai mehoa	
Akitanien mintzaren zen hizkuntza							

❖ Atleta laudioarra

ERRAZA

		4	8	7	6	3
	3			4	9	7
			6		8	
7				4		5
4	6	5	8	3		
			2		8	
	2	9	3	5	1	7
	7	4		6	8	5
5	1					4

		6	2	3	7	8
8				5	1	6
	2	6	8			
	5					
6	8	3			9	4
7			6	5	2	
6	8		3	7	5	2
	4				3	
3		8	4			

ZAILA

			7	4	
				5	6
4		5	6	8	
	5	7			
3		8	2		
			5	7	
2	3			5	
6					
9		4		8	3

4			9		3
		5	7	9	
6	8				7
7			3		
8	5		2		
		9			1
5	4		3		
1	9	4			8
				3	

DENBORAPASEN SOLUZIOAK

Sudoku, hitz-gurutzatu eta hitz gezidunen soluzioak webgunean ikusgai: <http://www.aiaraldea.eus/users/denborapasak>



Lan-eskaintzak

Ingeniari mekanikoa edo mekatronikako goi mailako graduatua LAUDIO
Biltegi langilea LAUDIO
Lanean istripuak ekiditeko teknikaria LAUDIO
Aseguru etxeko langilea LAUDIO
Logopeda LAUDIO
Mantenu elektrikoko langilea LAUDIO
Fresatzailea LAUDIO

LAN-ESKAIN-TZA GEHIAGO
AIARALDEA.EUS ATARIAN

Guardiako farmaziak

Irailak 26 SOLAUN eta IBARROLA (errefortsua YARZA)
Irailak 27 EGUIA eta PEREZ
Irailak 28 MENOYO eta PEREZ (errefortsua EGUIA)
Irailak 29 MENOYO eta PEREZ
Irailak 30 C. FUERTES eta HERNANDEZ
Urriak 1 EGUIA eta PEREDA
Urriak 2 RIVERA eta FERNANDEZ (errefortsua PEREZ)
Urriak 3 A. FUERTES eta YARZA
Urriak 4 SOLAUN eta CACERES (errefortsua HERNANDEZ)
Urriak 5 AIS eta CACERES (errefortsua SOLAUN)
Urriak 6 AIS eta CACERES (errefortsua HERNANDEZ)
Urriak 7 A. FUERTES eta IBARROLA (errefortsua PEREDA)
Urriak 8 MENOYO eta PEREZ

Zozketa



**PIANO
TAUPADAK**
emanaldirako
2 sarrera


Irailaren 29an
Amurrio antzokian

Parte hartzeko sartu www.aiaraldea.eus en
Zozketa data: Irailaren 27a, 12:00etan

Aiaraldea txiki

Bilatu

Uharte galduetan uste baino gauza gehiago aurki daiteke. Hemen zenbatuta ikusten dituzun elementu asko irudi nagusian ere badaude, eta beste batzuk, aldiz, ez. Bereiz itzazu.



Bi Koloře

Bi sudokuok kolore bana dute oinarri eta osatu egin behar dituzu. Lehendabizikoan, URDINA hitza osatzen duten hizkiak erabili behar dituzu (U, R, D, I, N eta A). Bigarrengoan, berriz, BELTZA hitza osatzen duten hizkiak erabiliko dituzu.

Gogoratu, letra bakoitzak behin agertu behar duela zutabe, lerro eta area bakoitzeko.




U				N	R
		A			
I				D	
	R		N		
		R	U		
N	A		D		I

	T	L	E	Z	A
			T		
T		E			Z
Z			L		E
		T	B		
	E	B	Z	A	



Soluzioak



2019-20

matrikulazio epea zabalik

-  Ukelelea
 Bateria
 Pianoa
 Gitarra
 Baxua
 Kantu klasea
 Haur-musika hezkuntza

Ikaskin 5, Laudioko industrialdea (Laudio) Gardeako tren geltoki alboan
699 88 35 63

Kontra

Mundutik Aiaraldera



Americo Dias Coutinho

JAIOTERRIA
PORTUGAL (1983)

BIZILEKUA
AMURRIO

BIDAIAREN ARRAZOIA
LANA

Pug Girl (Flickr)

PORTUGAL



DESKRIBAPENA

Erromatarrek eragin handia izan zuten zonaldean. Errenazimenduan itsas bidaia handiak egitegatik bilakatu ziren portugaldarrak ezagun. 1932tik 1970era Salazar diktadoreak agindu zuen herrialdean, harik eta "Krabelinen Iraultza" burutu zen arte.

AZALERA

92.212 kilometro koadro.

BIZTANLEAK

10,4 milioi biztanle.

HIZKUNTZA

Portugesa, eskualdeko hizkuntza bat (mirandera) ere aitortua dagoen arren.

“19 urterekin etorri nintzen eraikuntzan lan egitera eta hemen egin dut bizitza”

Zenbat denbora daramazu Amurrion bizitzen?

17 urte. Nire lagun batzuk hona etorri ziren eraikuntzan lan egitera. Lan eskaintza handia zegoen eta etortzera animatu ninduten.

Etorri eta eraikuntzan hasi nintzen lanean, eta tailer batera joan nintzen gero, soldatzaile gisa jardutera. Orain, aldiz, ostalaritzan nago.

Nik Portugalen banuen lana, baina hemen bikoitza kobratzen omen zen. Gero konturatu nintzen ez zela horrela: soldata bikoitza zen, bai, baina bizitza ere askoz garestiagoa zen. Diru gabe iristen nintzen hilabete amaierara. Fabrikara joan nintzenean, aldiz, gehiago kobratzen hasi nintzen.

19 urterekin etorri nintzen Amurrion. Lehen urtea apur bat gogorra izan zen. 12 pertsona etorri ginen. Nik bakarria ezagutzen

nuen, nire herriko bizilaguna. Hamabiak batera joan ginen pisu batera bizitzera.. Elkarbizitza egin behar izan genuen elkar ezagutu gabe.

Portugaldarren migrazioaren “booma” izan zen eta jende batek ez gintuen begi onez ikusten. Guri ere kostatzen zitzaigun jendearekin erlazionatzea, Portugalen beldurra sartu zigutelako apur bat, emigratzea arriskutsua zela esanez. Gero ikusi genuen ez zela horrela: ondo tratatu naute eta integritate egin naiz. Amurrion egin dut bizitza. Ezkondu naiz eta seme-alabak izan ditut.

Hizkuntzara moldatzea ere zaila suertatu zitzaizun?

Bai. Egunkari bat gaztelaraz irakurtzean ulertzen nuen zer jartzen zuen, baina hitz egiten zidatenean ez. Sei hilabete behar izan

nituen dena ulertu eta modu egokian hitz egiteko.

Seme-alabei portugesa irakatsi diezu?

Ez dut eurekin portugesez hitz egiteko ohiturarik. Eurekin bakarrik banago bai, baina normalean emaztearekin ere egoten gara. Nire alabak nirekin eta amonarekin hitz egiten du portugesez. Amarekin, aldiz, euskaraz hitz egiten du. Niez naiz euskaraz hitz egiteko gai, baina oinarritzko gauzak ulertzen ditut.

Harremanik mantentzen duzu zurekin batera etorri ziren beste portugaldarrekin?

Ez, gehienak beste toki batzuetara joan direlako lanera, Alemaniara, Belgikara edota Suitzara. Immigrante herri bat da gurea, betidanik. Baditut hemen lagun

batzuk nik bezainbeste denbora daramatenak, baina gainontzekoekin ez.

Eta Portugaleko senideekin, baduzu harremanik?

Bai. Nire anaiak eta nire ama bertan bizi dira eta noizbehinka bisitatu egiten ditugu. Hemengo eta Portugaleko kultura eta bizi-moduak nahiko antzekoak dira. Portugal iparraldeko herri txiki batekoa naiz ni. Gauzak hala, antzekotasun ugari daude bertako eta Amurrioko bizimoduaren artean: abeltzainak daude, janaria ere nahiko antzekoa da... ondo jaten da bitokietan. Portugaleko jendea oso abegikorra da, duten onea emango dizute.

Gustuko dut Amurrion bizitzea, baina beti dut Portugalera itzultzea buruan, itzuliko ez naizela dakidan arren.

EGUNKARI HAU LAGUNTZEN DUTE:



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA